

HERRI LITERATURAREN
IV. JARDUNALDIAK:
PAREMIOLOGIAZ

Durango, 1996-XII-06/07

HERRI LITERATURAREN IV. JARDUNALDIAK: PAREMIOLOGIAZ

Durango, 1996-XII-06

Pilar Ardanza,
herriko alkate anderea

Euskaltzainburua,
Euskaltzainak,
Agintariak,
Jaun-andreak:

Resurrección M.^a Azkue jaunak, lehen Euskaltzainburuak, zioenez, Euskaltzaindiak EUSKAL EGUNAK, "euskeraz utsezkoak", Durangon, gure urian, Astarloaren sorlekuan, egitea erabaki zuen. Irailaren 4-tik 8-ra egin ziren. Elizkizun handi, Zuberoako dantzari, Durangoko kantari, esku eta palazko pelota partidu, Bergarako antzerkilari eta abelazoka ederrez ospatu ziren. 1921-a zen, orain 75 urte. Elizan, Jesuitegian eta Udaletxean eman ziren hitzaldiak.

Aurten, urteurren honez gain, *Refranes* y *Sentencias* liburuaren lehenengo argitalpenaren (1596) laugarren mendeurrena dugu.

Gure hizkuntzaren historiako agiri baliotsuetakoa da, Mitxelena zenaren ustetan. 1911-tik aurrera Julio Urquijo jaunak RIEV-en argitaratu zuen bere iruzkin eta iradokizunekin. Lanaren izen osoa *Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance* da. Pedro Porralis de Amberes-ek Iruñean irarri zuen 1596-an. Bildumaren 61. esaerak honela dio:

"Gitxia gitxia asko egin doa".

Hau da, hain zuzen, gaurko euskaldunak gogoan izan behar duguna. Gure naziozintza burutuko bada ezingo dugu goiburu hau ahaztu. Ez gara handi, ez gara asko, baina bagara. Iraun behar dugu eta garatu, apurka-apurka gure izatea, Euskal Herriak mendez mendez izan duen tokia gerora ere nortasun osoz bete dezan.

Horregatik, Herri Literaturaren IV. Jardunaldiotan, Paremiologiaz gaur eta bihar emango diren hitzaldiotan, konturatu gaitezen hor, oinarrian, sustraian, badela izakera bat, badela herri bat filosofia hori, mundu irudi eta ikuskera hori gauzatu duena eta geure egiten gaituena. Ez dago etorkizunik iraganik gabe eta ez gara inor, geuretasunik gabe.

Agur, guztiori, hizlari eta entzule, jakitun eta ikasle. Zueri dagokizue gure herria arnastu eta irmotzea eta administrazio eta politika esparruetara gaudenori herri horri bere burujabetasunera bultz egitea.

Euskara danez Euskal Herriaren arnasa, gogora dezadan orain 75 urte, EUSKALEGUNETAN, Elorza jaunak aldarrikatu zuena:

Euskera “da Euskal Herriaren osasuna, bera da Euskal Herriaren edertasuna, bera da Euskal Herriaren bizia; zaitu ta edertu ta bizitu dezagun, bada, guztion artean”.

ONGI ETORRIAK Durangora!

IV. HERRI LITERATURA JARDUNALDIAK: *PAREMIOLOGIAZ*

Durango, 1996-XII-06

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Pilar Ardantza Durangoko alkate andere agurgarria,
Euskaltzainkideak,
Jaun Andereak, agur.

Laugarren Herri Literatura Jardunaldiei hasiera ematen diegu gaur. Laugarrenak dira, bi azkenak Donostian eta Oiartzunen ospatu ditugu. Ordua zen Bizkaian egitea. Zer hiri edo herri hauta? Dударik gabe Durango.

Alabaina Durangok badauka bere tokia euskal literaturan. Gogora heldu zait, Mexikon nintzelarik duela orain hogeit bat urte, jautsi nintzela katedraleko elizapera, han irakurto nituela lehenbiziko artzapezpikuen izen-deiturak, Juan de Zumarragarena lehenik eta bertze seienak, denak euskaldun semeak. Ez ditzagun ahanzt Astarloa anaiak, Belaustegigoitia jauna, honek idatzi zituelakotz Euskaltzaindiaren lehenbiziko arauak, lehenbiziko urgazleetan ere Otxoa de Kanapaga, eta geroztik agertu diren euskaltzale suharrak. Nahi nuke aipatu ere, Kurutzia hotelean baitut aterbea, horko etxeko jaun eta jabe izana, Kosme Elgezabal, ezin ahanztiz Felix Landabururekin, biak Bizkaiko foru diputatu zirelarik, aurkeztu zutela 1918ko urtarrilaren 25ean txosten bat euskal akademia bat sortu beharrez.

Egun horretan hasi zen Euskaltzaindiaren historia, Bizkaiko Foru Aldunditik Oñatiko Kongresura, lehenbiziko lau euskaltzainak izendatuz, eta azkenik Donostiara 1919ko urriaren 7an bildu zirelarik lehen aldikotz hamabi euskaltzainak.

Bazen bigarren arrazoi bat Durangon biltzeko laugarren Herri Literatura Jardunaldiak. Abenduko egun hauetan Durango da liburu-feriaren egoitza, Europan den Frankfurtekoaren idurikoa, Euskal Herri osoari doakona. Bada Durangon, egun hauetan, bizi berezi bat, euskal hizkuntza eta kulturaren arnasa salatzen eta oihukatzen duena.

Nola ez balia, orduan, egun hauek gogoan izanez, duela lau mende agertu zela *Refranes y Sentencias* deritzan liburu bat eta karia horretara paremiologia

gaitzat harturik Jardunaldiak eskaini ez bakarrik Euskal Herriko ikertzaaleci, baina ere atzerritakoei. Euskaltzaindiko literatura batzordeak bere xedeetan dauka arbasoek utzitako ondarea goraiatu behar dela, hain zuzen behar diren azterketak eginez, hala nola egin diren Elizanbururentzat, Oihenartentzat eta berrikitan Lizardi eta Aitzoli eskainiak izan direnak. Parada ederra euskal paremiologia aztertzeko.

Horiek hola, nahi nituzke orain laugarren Herri Literatura Jardunaldietan parte hartuko duten hizlari guztiak agurtu. Badira Euskal Herritik kanpo etorri direnak Julia Sevilla anderea, Madrilgo Unibertsitate Complutenseko irakaslea, *Paremia* aldizkariaren zuzendaria, Károly Morvay jauna Budapesteko Unibertsitateko irakaslea, euskara ongi menderatzen duena. Eguerdian etorri da Lyoneko irakasle emeritoa den Louis Combet, ene aspaldiko adixkidea, Correas espainiar paremiologoaren azterlea. Holako ikertzaileak beharrezkoak ditugu. Behar dugu jakin zer egiten den auzo herrietan, nola kudeatzen dituzten azterketak atzerrietan, zertan dauden metodologiaren aldetik, zeri buruz ari diren, zer lortu duten. Konparaketak onak dira, bereziki hain hedatua eta denbora be-rean herrikoia den genero horretan. Badugu zer ikas, badugu ere zer eskain.

Ene mintzaldi honen bururatzeko eskerrik beroenak eskaintzen dizkizut Pilar Ardantza alkate anderea, zure harrera onagatik, Udalak emaiten digun diru-laguntza eta biltzar-toki ederragatik. Jardunaldi egunak iragan ditzagun elgarrekin goxoki eta izan ditela egun aberatsak denontzat.

Eskerrik asko.

EUSKAL ATSOTITZ-BILDUMAK

Durango, 1996-XII-06

Xabier Kaltzakorta

XVI MENDEA

Esan ohi da gure artean euskal literatura hamaseigarren mendean hasten dela. Hor dugu, esaterako, hamaseigarren mende erditsutan, 1545an, argitaratu zen *Linguae Vasconum Primitiae* euskal literaturako lehen-harri preziatua, Bernard Etxeparek idatzia. Mende hau ez dugu aberatsegia izango argitaratu ziren liburuen kopuruari begiratzen badiogu, argitaratu ziren liburuen balioa, ordea, handia denik ezin uka. Guk geure lantxo honetan atsotitz-bildumez hitz egingo dugunez gero, esan dezagun aurren-aurren XVI mende bukaeran, 1596an hain zuzen, argitara zela liburu ttipi bezain baliotsu bat *Refranes y sentencias comunes en bascuence, declaradas en romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas...* Liburutxo honek uste baino antzekotasun gehiago du Etxeparerenarekin. Batetik, biak dira liburu ttipiak luze-laburrean eta baita liburu-neurrian ere. Horrialde gutxikoak dira, beraz, *Refranes y Sentencias*-ek 64 ditu eta Etxeparerenak 52 orrialde testudun, bestetik biak dira erdarazko izenburudunak-zein latinez, zein gaztelaniaz-baina euskarazko mamia dutenak. Harrigarria bada ere kasu bietan edizio osotik ale bakarra baino ez zaigu iritsi, eta, ale bakar horiek atzerrietan izan dute beren egoitza. Etxeparerena Frantziako Bibliothèque Nationalean aurkitzen da eta *Refranes y Sentencias* Alemaniako liburutegi batean. Ale bakar horiek biak, Patxi Altunak Etxeparenez dioen bezala, guk *Refranes*-ez ere esan dezakegu, *mirakuloski* iritsi dira gugana (1). *Refranes y Sentencias*-en kasuan (2) ale bakar hori suntsitu egin zen bigarren mundu gerran. Liburu biak ia erdi ezkutuan egon dira joan den mendera arte euskal idazleentzat berentzat ere. Aita Larramendik egindako liburu-zerrendan ez du Etxeparerena aipatzen ezta Pierre D'Urtek ezta Joanes Etxeberriek ere. Lope de Isasti-k bai ostera, bere *Compendio historial de Guipuzcoa* eta Oihenartek ere, zeharka bada ere, aipatzen du.

(1) Patxi Altuna Etxeparenez ari da era hala dio Liburuak ez dirudi hedadura handia zuenik, ikusirik batetik ale bakarra heldu zaigula mirakuloski, hori gabe ez baikenuen Etxepareren obra ezagutuko...“Sarrera” in *Linguae Vasconum Primitiae 1545-1995* Euskaltzaindiaren edizioa 15 or.

(2) Honez aurrera *Refranes y Sentencias* izendatzeko gure artean ohi denez RS laburdura erabiliko dugu.

Refranes y Sentencias delakoaren bidea ezkutukoagoa dela aitortu behar. Oihenartek ezagutu zuela ez dago dudarik baina ez du aipatzen. Larramendik bere hiztegiaren eranskinean egiten duen errefrau-kuadernoaren aipamenetik gauza handirik jakin ezin den arren, gaur egun badakigu zein errefrau-bildumaren gainekoa den. Hain zuzen gure RS bildumarena (3). Liburu bakoitzeko ale bakarria bakarrik iristea era askotara azaldu daiteke. Liburu biak hedadura gutxikoak izango ziren noski, ale gutxi aterako ziren inprentatik eta urritasun horrek eragingo zuen, neurri handi batean, liburuen galera.

Badago beste antzekotasun ezkuuago bat RS eta Etxepareren liburuen artean. Lehena errefrau liburua izanik herri-literaturaren esparruan sartzen da, Eihalarreko erretoreak idatzi zuenak badu herri-literaturarekin zer ikusirik, are gehiago, bere poesietan baditu errefrau ikutuak, edo errefrau tankerako zenbait esaldi sentenziotsu (4). Hor dugu esaterako 5 Eceyn iaunec eztu nahi muthil gaixtoa eduqui/ Ez pagatu soldataric cerbiçatu gaberico edo, are argiagoa dena, 13 Oguiric eztacussat vilcen haci ereyn gaberico delakoa (5). Bigarren honetan (13an) lehen pertsonan jartzen du, gehienetan hirugarren pertsonan doana. Bestela esan, aditz jokatu gabe egon ohi da askotan errefrau, edo jokaturik badago, hirugarren pertsona. (13an) ostera lehen pertsonara dakar poetak. Poetak hurrengo dakarrena hirugarren pertsonan dakar: Norc cer haci ereyn vilcen dici comunqui. Antzeko errefrauak erruz aurki daitezke, hor dugu, esaterako, Erran zuhur liburutik 528-Nola erein, hala bil. eta hainbat eta hainbat. Ez da lantxo honen egitekoa Etxepareren liburutiko errefrau gisakoak hona aldatzea, beraz utzi dezagun kontu hori hurrengo baterako eta mintza gaitezen guk eza-gutzen dugun lehen euskal atsoitz-bilduma argitaratuaz.

Izenburua:

Izenburua bera luzea bezain argigarria dela esan behar, erdarazkoa eta erdaraz egin ohi den bezalatsukoa. Erdaraz esaldi sentenziotsuak adierazteko badira hainbat hitz *refrán*, *máxima*, *apoteigma*, *adagio*, *aforismo* eta abar uste baino luzeago bat (6). Kontzeptu bera edo beretsua adierazteko ohitura izan da

(3) Badago iruzkintzen ari garen liburu bien arteko beste antzekotasun bat, fortunaren eskuak emana: bi ale bakarrek beren edizio faksimila La Gran Enciclopedia Vasca-ko orrialdeetan ikusi dute, Etxeparerenak lehen liburukian eta RS bildumak X garrenean.

(4) Patxi Altunak ere ohartu du berezitasun hau *Linguae Vasconum Primitiae* 1545-1995 aipatu hitzaurrean honela baitakar (Azpimarra gurea da):

Desira bat agertzea zilegi bada, ailitz omenaldi hau azken urteotan Euskal Filologian lizentziatu diren gure gazteen eta behialako ikertzaile sonatuen lehiakide izan nahiko duten euskalari arrotzen akuilu eta pizgarri, Etxepareren bibliografiak egun duen literatura aldetiko ikerketaren hutsarteak bete eta bere bertsoak esaeraz eta atsoitzez zirtakatzen dituen herri poeta handia dioro lezaten!

(5) Pasarteen zenbakitzea Patxi Altunaren edizio kritikoaren arauera egin dugu.

(6) Hor ditugu zerrenda gehiago luzatu aldera:a) zaharkituta dauden zenbait ale: Anaxir, anejir, anejin, brocárdico, conseja, derecho, enxiemplo, exemplo, enxemplo, ensiemplo escomma, escriptura, espunte, evangelio abreviado, evangelio breve, evangelio corto, evangelio chico, evangelio pequeño, fabla, habla, fablilla, fabrilla, fabriella, fabliella, fazaña, jeroglífica, maza, palabra,

hitzik erabilienaren aldamenean, hots, *refrán* hitzaren ondoan, beste argigarri edo goi mailakoago bat jartzea, eta honelaxe ditugu *Refranes y sentencias* izenez hainbat errefrau-bilduma erdal herrietan. Uste izatekoa da errefrauak berak ohikoak edo garaitsu hartan korritzen zutenak zirela *comunes en bascuence* argigarria datorrelako izenburuan. Errefrauak beren hutsean datoz inolako argigarri edo iruzkinik gabe, letra tipo batean ezkerretara eta eskuinetara erdal itzulpena duela, baina beste letra tipo batean, borobilagoan, alegia. Horrexe-gatik da *declaradas en bascuence con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas*. Esan behar da erdarazko errefrauaz ez dela euskarazko alerai dagokion erdarazko alea edo baliokidea. La cabra tira al monte erdal errefrauaren euskal baliokideak, besteak beste, txerria basatzara edo Gorbeieko belea Gorbeiera lirateke, eta itzulpen soila ahuntzak mendira joera. Egiten dena da euskarazko errefrauaren hitzak zenbakitu eta gero hitzez hitzezko erdal itzulpenean euskarazko hitz zenbakitu bakoitzari dagokion erdarazkoari zenbaki bera jarri.

Liburuaren edukia

Guk ezagutzen dugun ale bakarrak 539 errefrau ditu eta horietarik hiru errepikaturik agertzen dira (254-280, 256-91, 277-357), beraz 536 errefrau baino ez dira. Ez dira gehiegi Espainian argitaratu ziren Hernan Nuñez el Comendador (zazpi mila errefrautik gora), Mal Lara (*La filosofía vulgar* 1000 errefrau 1568), Marques de Santillana edo mende bereko baina XX mendean argitara izan den Gonzalo Correas-en bildumen ikusian. Kontutan hartu behar dugu guk ezagutzen dugun alea ez dela osoa, badirela falta diren errefrauak, liburuari falta zaizkion orrietatik, noski, gerora zehatzago esango dugun bezala. Oihenartek bere paperetan bazituen bere bilduman argitara eman ez zituen hainbat errefrau. Horietatik zenbait RS ekoak direla ez dago dudarik. Mitxelena ASJU-ko artikulu interesgarri batean eta *Textos arcaicos vascos* liburuan eman zituen argitara.

RS-ko errefrauaren artean badira, itxura guztien arauera, errefrau bihurtu diren kantak. Julio Urkixo izan zen 517 Eder elaea goxean cátacean enearé cáteac jonau biozean errefrauak kanta izan zelako ustea gure artean zabaldu zuena. Zer-gatik da kanta? Galdetuko luke batek baino gehiagok. Gure erantzuna da koplaz zaharretan behin eta berriro agertzen den *irudiaren* egitura ematen delako, hots, NON-ZER-EDER egitura, edo beste era batera, NOIZ-ZER-EDER edo guri dagokigun kasuan, EDER-ZER-NOIZ-NOLA. Irudi honen ondorengo pentsamentuak, edo, Aitzolek zioen bezala oldozkunak, enearén cáteac jonau biozean litzateke. Diogun irudiaren egituraren indargarri “Santibatek andere” delako eske-kopla zerrendatik bihoaz adibide hauek: 1) *Etxian eder gerrena/Etxekandere lerdena*. 2) *Etxian eder kortzeiru/ dabiltzarian ingu-*

paraula, parlilla, parlylla, patraña, pastraña, patranna, Proloquio, Retraher, retrair, retraire, sentenzuela, verbo, vierbo, viesso, verso, vulgar.b) eta gaurregunekoak ere Axioma, dialogismo, proverbio, frase proverbial, paremia, principio, dicho eta are wellerismo

ru...3) *Etxian eder ohako*, /*Haurra sortzen deneko*...4) *Landar eder ilarra/Haren pean belarra*...5) *Etxian eder ferreta*, /*Haren gainean kaneta*...6) *Etxian eder aitzurra*, /*Nausi bilo izurra*. Guzti hauetan, eta zerrenda askozaz luzeagoa egin nezakeen, NON EDER ZER egituradunak dira eta NON beti da etxean, ondoren datorrena beti da EDER, eta ZER delakoa, beti izaten da etxeko zerbait. Egitura berekoa da guk jarri dugun 517 errefracua. Irudi, pentsamendu jokoa duena da 418 Aunça ygarota oñaça aguiri bat ac daguina beftec yguini errefracua, eta, era berean, kantetarik atereak dirudite 451 Ene alabea axon ama marcaac dabilz yfasoan398 Loca jabilt aguina ta gogoa dot arina aleak.

Badago bakartxo bat errefracua ez dena, erramolde, edo erdaraz esaten den modismoa dena, errefracua izateko bi idea kontrajarri behar direlako. 477 Chacurcatu dagoz delakoak ez du irakatsirik ematen, ez da errefracua erramoldea baizik.

Liburuaren zertzeladak, gorabeherak

Etxeparearen liburua ez bezala *Refranes y sentencias* ia hemeretzigarren mende akabura arte ezezaguna izan da euskaldunen artean. Willem Van Eys euskalari holandarrak Alemaniako Darmstadt hiriko Grand-Ducale de Hesse liburutegian aurkitu zuen liburu ale bakarra 1894an. Liburu hori zen edizio guztitik ordura arte iraun zuen ale bakarra (*unicum*) eta aurkitzaileak artean ezezaguna zela aldarrikatu zuen lau haizetara. Aurkikuntzatik bigarren urtera, hots, 1896an, egin zuen ale bakar horren edizio ia faksimil bat-erdaraz quafacsimilar esango genuke- argazki batean oinarritu beharrean modu bereko letra moldeekin ia argitarapen berdin berdin bat egin zuelako (7). Konturatzen bagara agertu zen lehen alditik hirurehun urtera juxtu juxtu egin zuen argitarapena (8), hirugarren mendeurrenaren kariatara, hain zuzen. Aurten betetzen dira, beraz, ehun urte Van Eys-ek bere berrargitarapena egin zuenetik eta laurhun urte lehenarenetik (9). Garai hartako euskalari eta euskalzaleek (10) begi

(7) Editorearen hitzetan : Reproduction exacte de l'original. Imprimé à Genève chez W. Kündig & fils. Epreuves corrigés sur l'original par M. de Dr. Voltz. Dogson-ek zioenez berrargitarapen honek hutsak zituen jatorrizkoak ez zituena alegia , eta jatorrizkoak era bazituen Manuel Larramendik ohartu zuen bezala. Edizio faksimila Alfonso Irigoyeni zor diogu "Refranes y sentencias" *La Gran Enciclopedia Vasca* tomo X 616-682 pp.

(8) *Refranes y sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance. Réédités d'après l'unicum de 1596 conservé à la Bibliothèque de Darmstadt, par W. J. Van Eys*. Genève et Bale: Georget Cie, 1896 [64] pp. 21 cms.

(9) Mende honen hasieran, 1905ean, Bilbaon egin zen beste edizio bat ortografia egunaturik. Ez dakigu zergatik dagoen errefracuen ordena aldatu. Edizio honek ez du ia inolako interesik hizkuntza eta errefracuen ikerlarietzat. Titulu bera du baina ez dakigu nork egin zuen edizio hau. Azkuek bere Mrofologia vasca liburuan edizio honen kontra gogor hitz egiten du, eta arrazoiz gainera. *Refranes y sentencias comunes en bascuence declaradas en romance con nú-*

eta gogo onez hartu zuten aurkikunde hau, zeren uste baitzen Larramendik bere hiztegiaren eranskinean (11) aipatzen zuen errefrau-bilduma hura galdua zela. Van Eys-ek berak bere sarrera laburrean dio bere aurkikunde baina lehen inork ere ez duela aipatzen errefrau-bildumatxoa (12). Van Eys-ek egin zuen Jinebra, edo nahiago bada, Belgikako berrargitarapena ale gutxikoa zen, ehun baino ez (Tiré à cent exemplaires) eta garestia, eta, lortzen zaila izan zen irakurle euskaldun interesatuentzat. Garai haietan Azkuek Bilbaon aldizkari bat sortu zuen dena euskaraz oratua *Euskalzale* izena izango zuena, eta lehen zenbakietan *esakunak* izenburupean RS ko errefrauak argitaratzen hasi zen (13)

meros sobre cada palabra para que se entiendan las dos lenguas. Bilbao: J. Astuy, 1905 (79 pp., 21 cms)

(10) Baditugu zenbait artikulua, garrantzizkoena hauxe date Julien VINSON "Le premier recueil de proverbes basques imprimé connu (Pampelune, 1596) in *Revue de Linguistique et Philologie Comparé*, 1896, XXIX, 201-218 or. eta beste bi Dogson-enak berrargitarapenaren hutsak kritikatzuz Dogson, Edward. Spencer.: "The basque proverbs of the year 1596 in *Academy*, 1896 (july 18), 51 eta *Dana danean eta dana danegino. Indice de las 254 formas verbales empleadas en el libro intitulado "Refranes y Sentencias"*, Bayonne, 1896. y "El incunable heuskerico" in *El Noticiero bilbaíno* Enero 8 de 1906

(11) Larramendik bere *Suplemento* edo eranskinaren azkenalderantz, *Diccionario trilingue* bigarren liburukian, San Sebastian 1745, honelaxe dio: "Al acabarse la impression del Diccionario, me embia el Padre Agustin de Cardaveraz, de nuestra Compania, un Quaderno viejo, que le ha avido à las manos, andando en Misiones en Biscaya. Esta impresso en quarto, y contiene refranes del Bascuence, traducidos en Castellano demasidamente à la letra. Faltale el principio, y el fin; ni se sabe su Autor, ni donde se imprimio. Las páginas están en dos comunas, y en la izquierda viene el Bascuence de letra redonda, a quien corresponde de letra cursiva el Castellano en la izquierda. En ambas Lenguas estan apuntadas con numeros iguales, y correspondientes todas las voces, assi las Bascongadas, como las Castellanas, paraque nadie pueda equivocarse en su explicacion por la Sintaxis tan diferente de una, y otra Lengua. El dialecto es una mezcla del Guipuzcoano, y Bizcaino, aunque por lo comun domina este ultimo. En la ortographia tiene sus erratas, porque son conocidas y no causan confusion. Las paginas legibles son setenta en treinta hojas. Destas he ido entresacando con bastante prolixidad aquellas voces Bascongadas, que por lo comun no están eneste Diccionario, y las he colocado por su orden en las correspondientes Castellanos..."

(12) Avant-Propos:

Le recueil de proverbes basques-espagnols, que nous avons reproduit fidèlement que possible d'après l'original unique, se trouve à la bibliothèque Grand-Ducale de Darmstadt. La dernière correction sur l'original, a été faite par M. le Dr Voltz, auquel nous témoignons ici notre plus vive reconnaissance, grâce à lui le lecteur aura en main la reproduction exacte d'un petit volume aussi rare que précieux; nous croyons pouvoir dire qu'il est entièrement inconnu; personne jusqu'ici rien a jamais fait mention.

Le dialecte est celui de Guipuzcoa légèrement influencé de Biscaïen. C'est la première fois que nous rencontrons, dans ce dialecte, l'emploi du verbe à la 2^e me personne du singulier.

(13) Azkuek bere aldizkarian errefrauak jarri baino lehen irakurleari ondoko ohar hau egiten dio (*Euskalzale* 1897 IV geia 28or): Igaz irureun urte argitaratu zan Iruñan liburu eder bat, *Refranes y sentencias comunas en Bascuence, declaradas en Romance* izentzat daukana. Bizkaitarrez eskutiztuta dago. Berba banakaren batzuk ez dira gaur esaten; baina ikastetseak sortuten Iaungoikoak itxi nai izanezkerok, oituko dira. Beste berba batzuk gaur ez dira Bizkaian entzuten, Lapurdialdean baino. Onek bere ederto oitu leikez. Liburu eder au agortu aginik egon da. Darmstadt-ko Liburutegian bakar bat egoan. Van-Eys-ek birregin da igaz barriro argitatatu eban. Eztakit zelan ordaindu ginaion euskaldunok euskalzale iakintsu ta errime oni, guri egin dauskun meedea. Esku gitxitara eldu leike liburu au; batetik moldaldi laburra egin dalako, bestetik nai litzakean baizen merkea ezalako. Onegaitik EUSKALZALEK irakurleai erakutsi nai dautse. Onetarako, eskutiz-

Aldizkari gehiagotan ere agertu ziren RSko errefrauak, mugaz haraindiko *Es-kualduna* aldizkarian ere agertu baitziren. Azkuek egindako errefrauen edizioak ere grafiaren gaurkotzeaz landa gaztelania eta frantses-itzulpenez gaineratua egon zen. Horrezaz gainera zenbait errefrauri iruzkin txiki batzuk ere eskeini zizkion. Esan behar da lekeitiarrak ez zituela errefrau guztiak argitaratu: 317 garreneraino iritsi zen. Zerrendako errefrau bat ere itzuri egin zitzaion edo jan egiten du: 206-Goseac jolasic ez tu Jan berariaz jarri dugu, gose-kontua agertzen baita errefrau horretan (14). Azkue artean gaztea zen, hogetamairu urte besterik ez zituen, eta Azkueren iruzkinak ez ziren gerora *Euskara osotua* eta abarretan errefrauen gainean egingo zituen bezain aberatsak. Azkueren aldizkari barruko edizio hau ere gogor kritikatu zuen Dogsonek (15)

Beharrezkoa dugu azpimarratzea, behin honetarako gero, 539 errefrauak zerrenda luzeago bati dagozkionak direla, bestela esan, guganaino iritsi diren 539 errefrauak ez dira sail handiago batetik ezagutzen ditugun aleak baino. Baiztapen honetatik hainbat galdera sortzen dira, zenbat errefrau ziren guztira? *Unicum* horretan agertzen direnez landa ezagutzen dugu besterik? Lehen galderak ez du erantzun zehatzik eta bego beraz galderan. Bigarren galderari erantzuteko baditugu zenbait garbitasun. Batetik Larramendiren *Suplemento* edo eranski-nean agertzen den RSko errefrau ezagutzen dugu, *niño* hitzean *Seyacaz echun dina, ucuzcari jaigui da*. Kardaberazek Larramendiri eman zion kuadernoa da beraz RSko parte galduari dagokiona. Baeiztapen hau gorago agertu dugun errefrauetik ezezki hiztegiaren berean sartu zituen hitzetatik ere atera daiteke. Hor dugu, esaterako, *oparina* “necesidad” hitza, eta baita Iruñeko edizioan agertzen ez diren Bizkaiko hitz zahar gehiago ere. Beste zenbait errefrau Oihenarten paperetan aurkitu ziren eta Mitxelena *Textos arcáicos vascos* liburuan agertu zituen (16).

ker(a) (ortografia) zaarra ta guttiz txarra, barriraztuta agertuko dogu.

Urrengo geitik asiko gara esakune onek mortxaka txikietan argitaratuten. Gaztelarrez da prantzesez biurtoa doguz, eta esakune bakoitzai azalgeta labor bat geituko iako.

(14) AZCUE, R. M.: “*Esakuneak*” in *Euskalzale. Astean asteango albistaria*, 1897, I, (traduc. Vascófilo, revista semanal) 37-38, 44, 53-54, 63, 72, 79-80, 87, 94-95, 119, 135-136, 158-159, 164-165, 175-176, 191-192, 199, 207-208, 223-224, 232, 278-279, 286-287, 310-311, 318, 334, 352, 360, 367-368, 375, 422.

(15) *El Noticiero bilbaino* “Pues resulta que la edición de Ginebra 1896 es bastante incorrecto, como lo es tambien la de don R. M. Azkue en el “Euskalzale” aumentada con una traducción francesa no completamente verdadera. No entro en todas las pequeñas variantes tipográficas”

(16) Hauexek dira errefrauak: 540 Ynardun badaguic, ez doc ue(a)r besterenic. Si continuas en el trabajo, no tienes necesidad de otro. 541 Ojal ona huchan saldu doa. 542. Urrineric ospea, erricoa obea. 543. Saldubaga altamia, ozal[.Jan ez dilist[.]ia. 544. Huhufierean hoxtuac bulea. 545. Otu doneari ygarartean nequea. 546. Guiçon onac azcurriac bere. 547. Ecandu gasstoari bernea ausi. 548. Barria eder eguic. 549. Maya ta vide lucea, gastigaturic (enseñança)550. Jaunen hotua oy da aguiindua. 551. Emazte dollorren jaubea, jopu. 552. Maiaz onac dacaz pozac. 553. Garrastu adi icasterren ta neca adi euteren. Suffre por aprender y trabaja por tener. 554. Bere burhua ezautea da jaquitea. 555. Gastelauna neguia senar, ofiean arr ta beguijan negar. 556. Esquerrac yndauz ce on dexta ene gaucary. 557. Ene laba aldian labe(a) jausico zan. 558. Ylbeeran ereyn ceguic

Errefrauen euskalkia dela eta

Uste baino gehiago hitz egin da errefrauen euskalkiaz eta uste baino eztabaida gehiago daude. Has gaitezen Larramendigandik: “El dialecto es una mezcla del Guipuzcoano, y Bizcaino, aunque por lo comun domina este ultimo” esan zuen andoaindarrak. Van Eys-ek esan zuen gipuzkera zela bizkaierak apur bat ukitua (Le dialecte est celui de Guipuzcoa légèrement influencé de Biscaien). Dogsonek Van Eys-i gogor jazarri zion esanez umegorri batek ere ikus dezakeela ia bere osoan dela Bizkaiko euskera eta ez Gipuzkoako euskara Bizkaikoak apur bat ukiturik (The dialect of these proverbs is, as any Basque child can see, almost entirely Biscayan, not Guipuzcoan légèrement influencé de Biscaien as the editor says) (17). Vinsonek nahasi xamar zegoen mataza gehiago nahastu zuen. Gehienbat gipuzkera zela esan zuen, baina Bizkaiko hitz asko eta asko zeudela, ugari zirela iparraldeko goinafarrerakoak eta zenbait behe nafarrera ekialdekoak (Ces proverbes appartiennent principalement au dialect guipuzcoan; il en a cependant un assez grand nombre en biscayen, plusieurs en haut navarrais septentrional et quelques-uns en haut navarrais méridional caractérisé notamment par l’absence de n final aux imparfaits (18). Eztabaida hau gaur egunera arte ere ekarri daiteke Villasantek, esaterako, dio bizkaiera dela gipuzperaren eraginaz(el dialecto en que están escritos es vizcaíno , con cierta influencia guipuzcoana) (19) Gaur egun , gehienbat, bizkaiera arkaikoa dela esan ohi da, eta, beste zehaztasun batez, vizcaíno meridional edo eguerdialdekoa. Urquixo batez ere Orozko aldeko errefrauekin erkatzen ahalgindu zen, nahiz eta garbiki Orozkoaldeko jatorri nagusia ez baieztatu.

Errefrauen egilea eta iturriak

Refranes y Sentencias liburuaren egilearen izenik ez dugu ezagutzen. Behin hau esanez gero bi galdera sortzen dira. Ez dugu ezagutzen liburuaren hasera-amaierak falta ditugulako eta egilearen izena han etorri behar zuelako? Ez dugu ezagutzen egileak bere burua agertu ez zuelako, hots, anonimoa delako? Liburu osoa ezagutzen ez delako kontua argia da. Liburuko errefrauek zenbakiturik daude baina ez edizioan hala agertzen delako, gerora argigarri moduan zenbakitu direlako baizik. Liburuia nondik den beraz osatugabea ez dakigu hasieratik erditik edo dena den lekutik. Liburuaren azala badugula argi dago behintzat, bestela ez genuke jakingo izenburua bera ere.

arean. 559. Onerextea dodan lecuan jarri daquidala egusquia. 560. Seyacaz echun dina, ucuzca jaigui d(o)a. Quien con niños se acuesta, sucio se levanta.

Bi lekutatik atera daitezke errefrau hauek lehen iturria MICHELENA, Luis: “De paremiología vasca. Oihenart conoció los Refranes y Sentencias en Vascuence en ¡596” ASJU 1967 1-44or. eta *Textos arcáicos vascos*174-176 or.

(17) DOGSON, Edward Espencer: *Academy Egunkarian*1896

(18) VINSON Julien: *Bibliographie de la langue Basque*, 530 or.

(19) VILLASANTE, Luis: *Historia de la literatura vasca* 61 or.

Egilerik agertzen ez denez gero anonimotzat hartzen da. Horrelako kon-
tuak ez dira gure artean bakarrik gertatzen. Hor dugu, esaterako, liburu labur
bezain zoragari bat *Refranes Glosados* 1545 urtekoa, anonimoa dena. Egilerik
ezagutzen ez denez gero Urkijok pentsatu zuen egilea Esteban Garibai izan
zitekeela. Uste honen indargarri bost arrazoi eman zituen bere lan batean (20)
guk hona leku faltaz aldatuko ez ditugunak.

Iturriez denaz bezainbatean badugu hemen zeresanik. Gorago esan bezala,
liburuaren izenburua garai beretsuko eta lehenagoko errefrau-bildumak izan-
datzen ziren bezala oraturik dago. Horrek esan nahi du biltzaileak ezagutzen
zituela Gaztelerrian behintzat argitara eman ziren errefrau-bildumak. Julio Ur-
kixok uste zuen errefrau asko eta asko Hernan Nuñez-en bildumatik itzuliak
zirela eta are Frantziako bildumetatik. Badago kontu harrigarriagorik ere ho-
netan, zeren ikertzaile deustuarrak uste baitzuen zenbait itzulpen txarto edo na-
rратx eginak zirela. Esaterako, Goldearen amorecati pot nabarrari erdarazko Por
amor del buey, el lobo el arado lame delakoaren itzulpen narratxa zela uste
zuen (21).

Urkixoren arabera ia gehiena itzulia zela bazioen, zer zen euskal-althorrari
zegokiona? Euskaldunen Erdi aroko gerra odoltsuetarik atera ziren esaerak zi-
tuen jatorizat, ez itzultakotzat, esaterako, 404-Butroeco meniac gayti ez ys-
quilosay echi 92-Celangoada Butroe oroc daquie 167-Erioac ereçan Butroeco
alabea Plencian 270-Muxica arerioacaz aguica 273-Gaçean, gaçean, ta ez Ybar-
guengorean 284-Aramayo dabenac ezlemayo 88-Olaso guichibazuc ylaso.
Errefrau hauek bere testuinguru historikoan sartzen ahalegindu zen ahal ziren
datu historiko gehienez jantziz. Era berean, baziren ganboatar eta oinaztarren
arteko gerretarik urrun zeuden errefrauak ere. Hor dugu 187-Albia deunga duf-
tien abia. Esanak esan, Urkixok gaur egun “universal parimiológico” hitzaren
bidez izendatzen dena nolabait aurreikusi zuen, zeren, jatorriak jatorri, edo, itu-
rriak iturri, hizkuntza guztietako errefraueta dagoen nolabaiteko jakituria edo
mamia, hondarraren hondarrean antzerakoa, edo bat bera, zela pentsatzera iritsi
baitzen. Hori horrela onarturik ez legoke itzulpenaz hitz egiterik ezpada oinarri
oinarriko hizkuntza diferenteetako mamiaz (22).

(20) URQUIJO, Julio: “Los refranes vascos de Saugis” RIEV 1908, 677-724or. Arrazoiak
684-885 orrialdeetan aurki daitezke.

(21) Aipatu artikulu “Los refranes..” 690or. No me parece necesario alargar esta lista para
conseguir el objeto que me propongo: es decir, para demostrar que el autor de Refranes y Sen-
tencias conocía las colecciones de proverbios castellanos que se publicaron a principios del siglo
XVI. Sólo haré notar que hasta el refrán “*Goldearen amorecati pot nabarrari*” Por amor del arado
se besa la reja, que antes he citado, se me antoja una mala traducción del adagio español: *Por*
amor del buey, el lobo el arado lame. Descartados los proverbios traducidos del español o fran-
cés(...)

(22) URQUIJO, Julio: Aip. Lana RIEV 1908 “Los refranes vascos de Saugis” 687or. Cierta
es, que tal vez pueda pensarse en alguna manera de los proverbios y dichos del pueblo, lo que
Webster opinaba de las leyendas populares: que los motivos o datos originales son casi siempre
los mismos en todas las lenguas y que las variaciones son a manera de los cambios y las varia-
ciones de las piezas de un kaleidoscopio. Y esto con tanta mayor razón, cuanto que nos consta

Garibai errefrau-biltzaile

Hamaseigarren mende akabuan baditugu beste errefrau-zerrenda bi esku beretikakoak. Bi zerrendok Esteban de Garibay y Zamalloa (1533-1599) historiadorearenak ditugu. Garibaik bere memorietan dio bi errefrau-zerrenda bidali zizkiola Juan de Idiaquez-i, Felipe II Estatu konseilukoari. Bi eskuizkribuok Madrilgo Biblioteca Naziolean aurkitzen ziren. Bata (G 139) kodizean zegoen eta bestea (Cc79) kodizean. Bi eskuizkribuak, esan dugun bezala, Madrilen zeuden, baina bati baino gehiagori harrigarri gerta badakio ere, eskuizkribuetariko bat, (Cc79) Kodizekoa, Benito Maestre liburuzainak erregalu eman zion Francisque Michel-i. Nola izan daiteke hori? Gu geu ere harri eta zurtz uzten gaitu, baina hori izan zen kontua, hala gertatu zen Francisque Michelek berak kontaktzen baitigu. Galdutzat eman beharko genuke erregalu emandako eskuikribu hori Francisque Michelek argitaratu ez balu Oihenart-en atsoitzen ondoren (23). Francisque Michel-en eskuetan zegoen Garibairen eskuizkribua ez da zorionez galdu Patri Urquizuk aspaldi ez duela Frantziako biblioteka batean aurkitu eta berrargitaratu baitu.

Garibairen bi errefrau-zerrendak itzulirik eta iruzkindurik agertzen zaizkigu. Alde honetatik *Refranes y sentencias* baino aberatsagoak dira, baina, bes-tetik, zerrenda bakoitzean agertzen diren errefrauak urriagoak dira. XIX garren mendean Jose Francisco Aizquibelek (1798-1865) Garibairen errefrauen gainean egin zituen iruzkin edo azalpenak ez dira inolaz ere onak. Diogunaren berme, besteak beste direla, Villasante (24) edo Urkixoren iritziak (25) ikusi besterik ez dago.

Urkixo izan zen Garibairen errefrau-bildumen lehen ikerlaria. Urkixok zabaldu zuen gure artean paremiologia ikasketen arrastoa. Bera izan zen bideurratzaile eta aintzindari argi. Beraren lanek ez dute mundu zabaleko beste edozein paremiologo zehatz eta jakintsuren lanen lotsarik. Esan dezakegu heme-retzigarren mende hasera arteko errefrauen gaineko lanak, gehienez ere, lan paremiografikoak izan zirela, hau da, bilketa hutsak, ahoz aho korritzen zuten

por las investigaciones de los eruditos nacionales y extranjeros, que muchos de los proverbios usados en las lenguas modernas proceden de los Libros Sagrados o son mera expresión de los pensamientos emitidos por los filósofos y poetas de Grecia y Roma.

(23) OIHENART, A.: *Proverbes basques... seconde édition, revue* [Francisque Michel], Bordeaux, 1847

(24) Hona hemen Villasanteren aipamen bat *Historia de la literatura vasca* 264 or. "Cuando en 1854 la Academia de la Historia publicó las Memorias de Garibay y los refranes de éste, Aizquibel fue encargado de hacer el comentario e interpretación que acompaña a dichos refranes. A la verdad, no salió muy airoso de este empeño. Aizquibel conocía bien la lengua vasca de su tiempo y aun la de los libros del siglo anterior; pero los refranes de Garibay representan un vascuence mucho más antiguo y bastante distinto del que era familiar a Aizquibel; por eso no es extraño que no siempre acierte a traducir bien los refranes, y, lo que es más grave, a veces se permite corregir el texto para adaptarlo a la intrepación que a él se le antoja más verosímil.

(25) Urkixok badu, esaterako, artikulutxo bat izenburua bere ere nahikoa adierazgarri dena "Una distracción de Aizquibel" Euskalerrriaren alde, 1916, VI, 732or.

errefrauak papereratzea, zerrendatzea, metatzea. Bilketa hauek, egia esan, zenbaitetan itzulpenez horniturik zeuden, eta, inoiz edo behin-oso bakanka bada ere, zoritxarrez-iruzkin laburrez jantzirik. Julio Urkixoren nahia euskaldunon errefrau-altxorra ezagutaratzea izan zen. Euskal errefrau-bilduma zaharrak ez ziren gehiegi, ia eskuko hatzamarrekin kontatzeko heinekoak, hemeretzigarren mendean, ostera, bildumak ugaritu ziren nahiz bilduma bakoitzeko aleak hain ugari ez izan. Urkixok errefrau-bilduma zaharrak ikertu, zertzelada historikoez hornitu eta errefrau bakoitza Europako hizkuntzetako beste errefrauekin balio-kideak aurkitzen saiatu zen. Urkixorekin hasi ziren, beraz, lan paremiologi-koak. Lan paremiologikoa bere neurri onean egiteko, eta behar bezala burutan ateratzeko, beharrezkoak dira alde zurretik lan paremiografikoak eginak izatea, oinarria sendo izatea. Beste hizkuntzetako bidea ere halaxe izan da. Urkixok asmoera hori buruan zuela, errefrau-bilduma bakoitzeko liburu monografikoa atera asmo zuen, horrelaxe zabaldu zuen errefrau-ikerketara sail eder bat *El refranero vasco* epigrafearen azpian. Horrelaxe hasi zen Zalgizekoaren bildumarekin (26) eta Garibairi aparteko edizio bat eskeini zion (27). Bidea behin ondo markaturik zuela, dugun lan paremiografikorik zaharrenari, *Refranes y Sentencias*-i, lan paremiologikorik handiena -guk hemen zirriboratu dugun terminologia erabiltzea zilegi bazaigu (28)-eskeini nahi izan zion. Ikertzaile deustuarrek bere RIEV aldizkarian ia hogetabi urtez iruzkindu zituen *Refranes y Sentencias* liburuko 539 aleak baina Garibairen bildumarekin bezala ez zuen liburu bakar batean atera (29).

Garibairen errefrauak beren hiztegi, zertzelada egoki eta abarrez horniturik lan eder bat argitaratu zuten Jose Ramon Zubiaurrek eta Jesus Arzamendik (30). Garibairen errefrauen ezaugarri nagusia herri-herrikoak izatean datza. Mondragoarrak bildu zituen esaera zaharretan ez dago itzulpenaren duda arrastorik ere, denak dira ahotik harakoak, hamaseigarren mendean euskaldunek beren esanak gatz-ozpintzeko erabiltzen zituzten urregorritzko aleak. Errefrauak

(26) URQUIJO, Julio: "Euskaldunen Erran Çaharrac Beltran Salguis Nafarroa Beherecoa Gorte guchienean Erregueren Conseillari denaren arthas bilduac" in RIEV 1908, 706-722 or.

(27) URQUIJO, Julio: "El refranero vasco. Tomo I. Los refranes de Garibay, San Sebastian, 1919.

(28) Guk darabilgun terminologia hau besteren lanetatik geuretua da. Irakurleak jakin nahi badu nondikoa den hona hemen iturria: SEVILLA MUÑOZ, Julia: *Hacia una aproximación conceptual de las paremias francesas y españolas* Editorial Complutense Madrid 1988.

(29) URQUIJO, Julio: "Los refranes y sentencias de 1596. Estudio comparativo", RIEV, 1911, V, 375-401, 581-589; 1912, VI, 230-234; 1913, VII, 60-66, 438-470; 1914-1917, VIII, 17, 50, 230-266; 1928, XIX, 548-563; 1929, XX, 45-46, 212-217; 1930, XXI, 166-177; 1931, XXII, 74-81, 531-541; 1932, XXIII, 35-45, 264-288, 522-545; 1933, XXIV, 39-59. Lan honen zati bat bi liburutan bildu zen *Refranero vasco. Los refranes y sentencias de 1596 I y II* liburua *Auñamendi* n.º 40 y %55, 64 y 67 urteak. Lehen liburua Koldo Mitxelenaen aitzinsolas argi eta zehatza dakar. Bi liburuek ez dute biltzen Urkixok *Revista Internacional* delakoan iruzkindu zituen errefrau guztiak. Uste izatekoa da liburu argitaratzaileek hirugarren liburuki bat ere argitaratu asmo zutela zeren bigarren liburua azken errefrau iruzkindua 394 a baita.

(30) ZUBIAUR J.R. & ARZAMENDI J.: "El léxico vasco de los refranes de Garibay" in ASJU X, 1976, 47-144or.

iruzkin gabe baleude ere aho-kutsu nabarmen hori ezin utzizko tasuna litzateke, zalantzarik gabe. Errefrau-ale bakoitza iruzkin labur baina egokiz jantzirik gugana iristean benetasun-froga horrek zehaztasunean irabazten du.

Orain arte, handi-handika bada ere, iruzkindu ditugun RS eta Garibairen bildumek badute elkarren arteko antzekotasunik eta are bateratasunik ere. Bilduma biak dira XVI mende bukaerakoak, are gehiago, XVI mendeko azken hamar urteetakoak. Errefrauen euskera nagusiki bizkaiera ez dela ezin uka. Nahiz eta, gure uste apalean, ez Bizkaiko euskera bera izan. *Refranes y Sentencias*-koa Bilbo aldekoagoa da, mendebal aldekoagoa eta bestea sortaldekoagoa, Bizkaiko euskera egiten den Gipuzkoakoa, Arrasate edo Mondragoe ingurukoa. Arrazoi guzti hauek kontutan harturik Urkixok, gorago esan bezala, hipotesi bat luzatu zuen gehiegizko indarrrik egin gabe, edo goitik behera indarka ezarri nahi gabe. Mitxelenak ere ez zuen erabat bere egin Urkixoren hipotesia (no pasa de ser una mera posibilidad) (31). Urkixok agertu zuen hipotesiari zehaztasun eta ñabardura ugari erantsi zizkion, gure artean, J.A. Lakarrak (32).

Gakizkion aurrera eta esan ditzagun Garibairen bildumen zehaztasun zenbait. Arrasatearraren bi bildumak, guk besteak bezala, A eta B izendatuko ditugunak, guztira edo guztitara 118 errefrauz osatuak dira. A delakoak 54 eta B delakoak 64. Lehena A deitua, (G 139) kodizekoa da, eta, bigarrena, B deitua Francisque Michel-ek argitaratua (Cc 79) kodizeari zegokion. Bilduma bi haucetan 37 errefrau agertzen dira errepikaturik (33). Bi bildumok, *Refranes*-ekin gertatzen den bezala, ezosoak edo oso-osorik guganaino iritsi ez diren bildumak dira. Alda dezadan adibide gisa errepikatutako ale bat edo beste:

A 1: “Por los que comiençan a trabajar, quando auian de descansar en la senectú, dizen:

Echera orduan basora

A la hora boluer a casa yr al monte”

B 29: “Por los hombres que fueron ociosos en su juventud, y quieren trabajar en la vejez, quando auian de descansar, dizen:

(31) Aipatu lana. MITXELENA, Luis: “Preambulo” in *El Refranero Vasco. Los Refranes y sentencias de 1596*. Esta colección no lleva nombre de editor [R SJJ. de Urquijo sugirió que ésta podía ser una de las mencionadas por Garibay. La atribución, aparte de que la variedad dialectal no difiere de la de las dos colecciones manuscritas, se funda en que el número de proverbios que tiene en común con éstas es sumamente reducido, lo que resulta difícil de explicar en el supuesto de que ambas compilaciones fueren independientes. Se trataría en este caso, que no pasa de ser una mera posibilidad, de una de las dos colecciones enviadas por el mondragonés a Idiaquez y publicada por éste o por alguno de sus herederos.

(32) LAKARRA, J.A.: “XVI. Mendeko bizkaierazko errefrauez; I. Garibairen bildumak” in ASJU XX-1 1986, 31-65or.

(33) Zeintzu diren A eta B bildumetan errepikaturik agertzen direnak jakiteko, zein bilduma batetik bestera dagoen euskeraren ñabardurez ohartzeko jo beza irakurleak aipatu Lakarraren artikulura. Bilduma bata giputzago dela edo, gipuzkeratik hurbilago dela, ezin uka. Hitzen zein egituren ñabardurak hemen ezin ditugu jarri.

“Bolber a la hora del monte al

Etorri ordu-an vaso-ra

Como quien dize: Ba al monte, quando avia de volver dél”

Ikusten den bezala errefrauaren aurreko iruzkinak errefrauaren berri ematen du, eta itzulpena askotan sintaktikoa da, ez hitz hitzekoa, horrelaxe datoz vaso-ra /monte al bezalako bihurpenak. RS bilduman itzulpena hitzez hitzekoa da baina euskal errefrauaren hitz bakoitzeko zenbaki bakoitza erdarazko hitz bakoitzeko esangurari dagokiola dago.

XVII MENDEA

Ikusi dugu XVI mendeko errefrau-bildumak mendebaldeko euskalkiari dagozkiola, ez gara orain zein bizkaiera-moduri dagozkion azaltzen hasiko, uste baino zailtasun gehiago ekarriko bailiguke zehaztasun horrek. XVII garren mendeko biltzailerik garrantzizkoenak euskalkirik sortaldekoenak edo ekialdekoenak dira. Mintza gaitezen, beraz, Arnald Oihenartez (1592-1667). Biltzaile honen lanean murgiltzeko, aipa dezagun Paris-en, XVII mende erditsutan argitara zen lan batez *Les Proverbes Basques recueillis par Sr. d'Oihenart, plus les poesies basques du mesme auteur*, Paris 1657. Lan honek errefrau-bilduma bat dakar bere golkoan (*Proverbes Basques recueillis par Sr. d'Oihenart*) eta olerki zenbait ere bai (*plus les poesies basques du mesme auteur*). Euskarazko errefrau-bildumarik ederrenetakoa dugu. Lehengo terminologiara itzuliz, euskaraz dugun lan paremiografikorik handienetakoa dugula ezin uka, 537 errefrau baitakartza aldamenean frantses-itzulpena duela. Errefrau-ale guztiak abezkiro ordenaturik daude, lehen esan dugun bezala, itzulpena aldamenean dutela. Itzulpenaz denaz bezainbatean, esan beharra dugu ez dela, zorionez, kasu guztietan hitzez hitzeko itzulpena. Zorionez diogu zeren itzulpena izan beharrean zenbaitetan moldapena edo itzulpen luzexeagoa denean, errefrauaren zentzuaz ohartzen gara. Eman dezagun, adibidez, kasu bat:

32-Arima onari euri. Le temps pluieux, *en la mort de quelqn'vn*, es le figne d'vne bonne ame.

Errefrau hau hitzez hitz itzuli balu nekez ulertuko genuke, hiru hitzeko errefrau labur bat baita. Euskal bildumetan agertzen diren antzeko errefrauekin erkatuz jakingo, edo beharbada asmatuko genuke, XVII mendean errefrau horren bidez ulertzen zena. Azkueren bilduman agertzen dira antzerakoak eta euskal sineste, eta are Europa osoko zenbait lekutako sineste baten berri dakar. Norbait hil ondoren arima zeruraten dela adierazten du, arima ona izan dela, alegia. Arima txarra izan bada, hots, pertsona gaiztoa izan bada *haizea* egiten du, ona izan bada, *euria*. Zehaztasun horiek azpimarraturik dagoen *en la mort de quelqn'vn* delakotik atera daitezke. Erdal itzulpena, edo nahiago bada fran-

tses itzulpena, beraz, luzeagoa da euskarazko errefrau-aleari hitzez hitz dago-kiona baino, zeren errefrau asko eta asko oso laburrak baitira. Badira bi hitzeko errefrau zenbait ere Haritchelharrek egin duen lan polit baten azaltzen den bezala.

Zenbait errefrauak, edo Oihenartek berak zioen bezala, zenbait atsotitzek badute euskarazko iruzkina ere. Iruzkin horrek, zer esanik ez dago, asko aberasten du errefrau. Errefrau guztiek iruzkina balute askozaz ere bilduma aberatsagoa izango litzateke. Eman ditzagun, kasurako, hiru adibide:

367. Ongui eguiten duenac bilaunari, bere onguia du efteialzen, eta escarnio eguiten capareari. *Kapare da bilaun estena, es eta xoil aitoren feme, baina bien arteco, Efpagnan hidalgoa den besala.*

372. Orhico xoria Orhin laket. *Orhi da Bortuetan mendi gorabat, Nafarroa elgataco, eta Suberoaco mugan.*

373 *Orhin* ekhia bero. *Ihardefpena.* Han isanic hona nis. *Noispait atsotiz hau offoric erraiten sen, bana orai esta ihardefpena baici erraiten; eta haren erran-lekua da, nois ere norbait oharzen baita berzebatec, enganazecozat, serbait eragin nahi diola; seren atsoen errana da; behiala, hegastiac minso sirenean, xoribat neguan hozes-hila habiabat arrimatu sela, eta hura berze xorribates hartua edirenic, haren hantic ateraceco, Finhets araci nahi vken siola, Orhin ekia bero sela; ordea berzeac haren mina esagaturic, inhardetsi siola, basaquiela Orhico-berri, esi hantic etorri-berri sela.*

Hona aldatu ditugun errefrauak iruzkin argigarri bat dute, nahiz eta 372 bezalako errefrauak ezagun baino ezagunagoak izan Oihenarteren garaian ezeze baita gaur egunean ere. Beste zenbait adibidetan, 367ean, esaterako, XVII mendeko gizarte mailen berri ematen zaigu. Ipuin labur bat osorik ere agertzen da 373ean bere sarrera-formula eta guzti (*behiala, egastiac minso sirenean*). Euskal literaturan agertzen den herri -puin zaharrenaren testigantza (testigantzarik zaharrena ez ipuinik zaharrena, jakina) ere ematen digu bide batez errefrauak. Badu gainera testuingurua adierazteko hitz jator bat, *erran-lekua*, alegia. Errefrauak ez baitira noiznahi solasean zirtakatzen edo txertatzen solasak eskatzen edo agintzen duen leku egokian baizik. Adibide hauek izan bitez Oihenarten bildumaren zer-nolakoen adierazpenaren argigarri.

Oihenartez esan dezagun Maulen jaio zela, abokatua izan zela ogibidez. Formazio unibersitarioduna, beraz, eta beste gauza askoren artean latinez idatzi zuen historiadorea. Errefrau-bilduma argitara baino lehen latinez idatzi zuen Euskal Herriko historiaz *Notitia utriusque Vasconiae, tum ibericae, tum aquitanicae...*, Paris, 1638. Jakintsuek diotenez, gu honetan ez gara sartuko, Oihenart historiadorea gora handikoagoa de Oihenart paremiologoa (34) baino. Historia liburu honetan ere lau errefrau txertatzen ditu:

(34) Hemen guk erabili dugun terminologiaren arauera paremiografoa esango genuke baina

Erroya has ezac,-Beguiac dedezac. Cria cuervo, sacar te ha el ojo. *Maiaç eurite,-Urte oguite.* Agua de mayo, pan para todo el año. *Edale-huna-chapachar-duna.* Debajo de mala capa hay buen bebedor. *Usqui maite-Higun Elaite.* Culos conocidos a cabo de cien años son amigos.

“Devocion Les jeux, farces, momeries, processions tapisseries et autres créations en defaict de dévotion sont des choses du tout profane come les danses des Israelites devant le veau d'or.” (R2. 89. eskuin).

«Jokuak, fartzak, maskarak, haurkeriak, mustrak, debozio aitzakian gauza oso profanoak dituzu. Urrezko txahalaren aurrean Israeldarrek ematen zituzten dantzen gisakoak.

Beste leku batean Donapaleun bere garaian ematen ziren galarrots edo zintzarrotsak epaitzen dituzu etnografiatzko albiste jakingarria emanaz. Horrek ez du erran nahi herritik jaso dituen erranak mespretxatzen dituela zeren euskara baitaki eta Etxeberri Ziburukoaren zati luzea ematen digularik halabeharrez jakin beharra. Bere anderea Nafarroa Behereko Joana Arbideko ere euskalduna genizun. Harekin ezkondu zen 1614ean. Entziklopedia hortan berari zuzendutako bi olerki luze daude frantsesez Andere euskaldun hori, agian, sarritan, euskal iturri izango zitzaion, bera urte pare bat herbesteratua egona zelako Biarnoko Jasses herrian; gero ere bere ikasketak Leskarren Biarnon egin zituela idazten baitu letargia kasu bat ikusi duela herri hortan ikasle zegoelarik 1601.an (R4, 135.orrrian) Bestalde “Commentaires“ etan idatzi duen bezala 1607. 21 urteekin, Gaskoniako Tolosa hirian zuzenbidean doktore igaro zen. Hogeitahamalau urteak zituzun Bela-k Zalgize hil zenean, eta balitekezu azken horrek, bera bezala protestantea, izanki, eragina ukan zuen Belarengan. Belak ordea zori hobexea izan zuen, ezen Zalgizen obra gehienak galdu baitziren, Oihenartek eskuratu atsotitzak izan ezik.

Hamazpigarren mendeko jende askoren gisa Jakes Belakoa arrazoinez eta sinesteez nahasitako gizona da. De Lancre kultura haundiko gizonak sinesten

duenean sorgin batek jauzi egin dezakeala Larrun goihenetik Donibane Lohitzuneko hondartzaraino makurrik gabe, halaber Belak sinsesten du begizkoan eta begizkoaren axolbean jartzeko kutunean. Eztira gure jakitunak animismotik hain moztuak: Frantziako Medicistar erregiñak egun guztiz astrologoari egunaren berri eskatzen dionean Eta Decartes ospetsuak holako sinesteak dituelarik, egun guztiz bere horoskopoa eragiten, baina Belari euskal atsotitzak ez zaizkio baliatzen holako bazter ideien argitzeko.

Liburuaren xedea

Nola Lehen tomoan (R1) eta 19. orrian honela idatzi du, itzultzen dudana:

“Ceste besogne est come de sage femme a la faire naistre et vivre sous auspices de meilleurs théologiens, plus sages politiques que je ne suis. J’use de redites soit pour ce qu’un mesme discours contenant divers sens j’allègue en un endroit une résolution pour une intelligence et la réallègue en un autre sujet ou elle siet bien, jointes d’autres considérations. Je m’y sers aussy d’aucunes diccions et de mots, proverbes et refrains Latins Italiens, Basques, Gascons, Espagnols, etc., d’autant qu’à mon gré telles choses servent en la dite manière et avec plus d’energie, efficace, et utilité et que si elles estaient transcrites en autre langue” (R1. 19. orrian, ezker).

“Lan sail hau emagin batek sortzeko eta biziaratzekoaren antzekoa da. Nainen baino teologilari, politikolari hobeen babespean jarriz. Errepikapenez baliatzen naiz, esaldi berdinak erran nahi asko har dezakelako, leku batean erabiliko dut ondorio baterako eta bestean beste gai baterako. Latin, italiera, euskara, gaskoniera, gaztelera eta beste hizkuntzetako esaera eta atsotitzez baliatzen naiz, baita hitz, erranmolde eta perpausez ere, nola eta nire ustez holako gauzak indar, eraginkortasun, erabilgarritasun gehiagorekin, zerbitzatzen diren, beste hizkuntzara, soilki itzuliak balira baino hobeki”.

Zertarako. Azken alearen azken lerrotan honela dio Bela-k:

“Aurrean sartu dudan nire luma kondairaren lan honen gatik hasarre gorri leudekenei erantzun nezaken gauza bakarra, hau besterik, nik oharrez eta erakaspenez eman Tablètes horien baino gehiago eta hobeki egin dezatela eta halkan balitz *secundum subjectam et materiam* diodalarik onar dezatela, otoi haien zerbitzari guztiz apala naizela”.

(1650.eko apirilaren 28.an urrendua).

Noiz

Aski irakurri ondoan nor nahirik ikus dezake, bi alditan idatziak izan direla Tablètes-ak, esku berdineko izan arren idazkera eta luma ez direlako berdinak.

Lehen idaztaldia, hizki lodiz, larriz eta paperari dolu gabe eman da. Entziklopedia itxura argi du, hautatu hitzek ez dute bizpahirur orrialdetako aipamena baizik. Maiz idazleak bere egunetako gertaera bat kondatzean urteguna ematen digu, halaxen lehen alean 1645 agertzen da, beste leku batean “*Serviteurs*” kronikan kondatzen du zergatik Etxauzeko jauna urte bete hartan eta 1649.an preso dagoen eta idaztaldi eta hegatsaldi horren azkenean dio 1650.eko apirilaren 26.an bukatu duela bere bilduma. Idaztaldi hortan dira euskaraz, gaskoineraz, gaztelaniaz, gerkeraz eta hebreozko atsotitz gehienak agertzen, hasieran eran bezala idazten duelarik.

Bigarren idaztaldia hizki xehe, luma fin batez emana da eta hasierako xedetik apur bat urrunduz, gai bati buruzko orrialde osoak kopiatzen ditu, latinez eta frantsesez. Orrialde luze horiek, parrafo gabekoak, bere lehen idaztaldian tartekatzen ditu. Ia atsotizik eztago, 1660.eko liburuen zatiak kopiazten ditu eta hirurgarren alean 295.orrialdetan, urtegun berriena agertzen da, Lorraine herriko auzapez epailea aipatzen duenak, le 4 de juillet 1665. Azken egin horrengatik zuen CLEMENT-SIMON-ek idatzi 1665.ean amaitu zuela bilduma Bela jaunak.

Egituraz

Aurretik erran bezala bi idazkera daude, orri neurri berdinetan emanak. Liburuen aipamenak ohar gisa lehen idaztaldian, kapitulu bakoitzaren azkenean ematen ditu, baina askotan ere ezkerreko eta eskubiko bazterretan, noizpeinka ere lerroen artean.

Bigarren idaztaldian dena garbiago da eta liburuen aipamenak, orrialde eta guzti, kopiatu edo aipatu zati bakoitzarentzat ezkerreko edota eskubi bazterrean garbiki emana agertzen da. Orotara, garai hartako idazkerekin erkatuz, aski irakur erreza da. Erran dezakegu inprimatzeko gerturik zegoela, ezpaita zirriborroa. Ortografiaren eta hizkuntzaren aldetik XVI.mendeko frantsesa darabilla hain zuzen mende haren azkenean baitzuen hizkuntza hori ikasi.

Bibliografia

Bela-k aipatzen dituen liburu guztien bibliografia ematen du, bata hasieran idatzia alfabetoaren lerroan, eta bestea liburuak nahasian ematen dituenak. Azpimarra dezakegu ez duela Oihenarteren bilduma erabili, argitaratzekoa zena 1650.ean eta bere bilketakoak direla atsotitzak erakutsiko dugunez. Atsotitzak aztertu ondoren hortaz zerbait gehiago errango dugu.

Gaztelaraz, latinezko, gaskoinerazko atsotitzak liburutatik hartuak ditu. Haren laurogei bat liburuen zerrendan asko erabiliko dituen gaskoinerazko *Ca-*

tonet, atsotizen bilduma et *Decaloga*. Latinez bi euskaldunen lanak aipatzen ditu Michaelis VERINI *poetae christiani de queror moribus disticha verum-duntur*, Tholosae, 1538, eta Martini IBARRAE cantabri. *Disticha moralia Catonis Romanicum prooepto in prosa orationis et dictis insignit septem sapientem Graeciae*. eta frantsesez irakurria Huarte-ren *Examen de ingenios*, asko erabiltzen. Moralista lana dagianaz gain, Duret, Montaignen dizsipulua darabilia, baita Pibrac-en olerki lauhoak ere. Gaztelaraz *El Guzman de Alfarache* por Mateo Aleman, 1599, eta *Theatro de los mayores principes del mundo*, por Fray Jayme Rebulosa, impreso en Barcelona, año 1605, eta atsotitzen-tzat *Refranos castellanos glossados* Jeronimo Cortes, Zaragoza, 1638, Antonio de Guevara ren *Epistolas familiares de don Tunon de Guevara*, Obispo de Mondondo, predicador del Consejo del Rey, impres. por Juan de la Cuesta año 1628 *Mémoires* de Monsieur de Villeroy, Paris, 1623...

Beste liburu aipagarrienak hauexek dira. Duret *Du Thrésor de l'ystoire de l'origine des langues*, Verdun, 1635. eta idazle berdinarene *De la Sagesse du charron*, Paris, 1621. Dn Thomoe A. Kempis Canonici regularis ordinis Sti Augustini, *De imitatione Christi* libri quatuor impres. Lugdunum apud Joan Hugueton, an 1643. *Historia de las Antigüedades del Reyno de Navarra* por el padre Moret, natural de Pamplona, Chronica del mismo reyno impres. en Pamplona por Gaspar Martin, año 1602. Desbaratz, *Ystoire du diocèse de Bayone*, 1663. Olhagaray *Ystoire de Foix et de Navarre*, 1661.

Nire irakurketa

Saiatu naiz duela chungarren urte honetan, frantses eruditoak baino hobekixeago egiten. Hortarako abisatzen zaituztet lau liburukiak Registre izenekin agertzen direla, R1, R2, R3, R4, sistema hori begiratuko dut.

Ez dira orrialdeak baina orriak zenbakituak beraz, orrialdeen bereizteko “ezker”, “eskuin” jarriko dut orriaren ondoan. Atsotitzak beren azentuekin ematen saiatuko naiz, beren grafiak gordez, eta batik bat, ingurumena, kontestua emanaz, eta itzuliz. Atsotitzak emango ditut obran agertzen diren ordenean eta azkenean baizik alfabetoaren lerroan.

Nahiz bi bider zehiarka irakurri ditudan bi mila eta bostehun orrialdeak, beharbada atsotitz bat edo beste eskapatu zait. Bestalde bizpahirur lekutan atsotitzei buruzko aipamenak edo euskarazko erran molde batzuk sartu ditut, hala nola, agertzen direnean, urtegunak ere.

Bildu ditudan atsotitzak

Hemen hasten da atsotitzen bilketa, frantsesezko kontestua neronek euskarara itzultzen dudalarik. Mota guztietako oharrak azkenean egingo ditut, Be-

laren bilketaren balorapenarekin batean, baina aurretik diot atsotiz bat bizpahirur lekutan eta adierazi desberdinxkekin gertatuko dela idazleak abisatu gaituen bezala.

A.1. Nasaitasuna (Abondance) (R1, 23.orr. eskuin)

Nasaitasunak jendeari eragiten dizkio zernahi asmakuntza eta zernahi atsegin ematen horregatik dio euskaldunak, **Hobé da nequécia ezi ez soberania** erran nahi baitu soberakuntza baino hobe dela ezongi izatea.

A.2. Egitekoak (affaires) (R1, 44.orr. ezker)

Ez dezake jasan nire gogoak bere erabakien gatik tinko jar dadin non ez den dagokion egingaiaz albiste eta agindu hoberik eman gabe, pozik egon arte, horregatik, jakitatezko gogoz azter dezan, burutik-buru, egitekoa **unde** euskaraz, **Eytzac hoúná hobiagáti**.

A.3. Arima (Ame) (R1, 73.orr. eskuin)

Gertatzen da gorputzez hurbilenik daudenak, sendimenduz urrunenak izatea **hinc** euskaldunak **Eliçatic hurranéna pharadusutic urrunéna**.

A.4. Adiskidantza (Amitié) (R1, 92 ezker)

Kasu eman behar da adiskidantza berri batek ez dezan zaharra alda, horregatik erromatarrek, aintzinetik Samnitarrekin hartu adiskidantza, ez zuten gaitzetsi nahi izan Kapuarren alde eta lehenen kaltetan **unde** euskaraz **Aurthen amore berriagáti eztuc utçiren çaharra**.

A.5. Maitasuna (Amour) (R1, 100.orr. ezker)

Maitasuna, sarritan, hiltzen eta pizten da. Arrazoinekin haur baten itxuran erakusten da eta euskaldunen arabera, **Criquetz eri, criquetz sendo**.

A.6. Jangalea (Appétit) (R1, 134.orr. ezker) (ikus A.9)

Jatekoaren aldatzeak jateko gogoá berotzen du eta on baldin bada besterik ez du eskatzen **Gossia bere jaqui**.

A.7. Eder (Beau) (R1. 184.orr. ezker) (ik. A.10, A.58)

Gorputz ederra daukanak arima ederra ere da errainara (nahiz batzutan besterik gertatzen den) **unde** euskaraz **Emazte édérria bordéleco, guizon édérria urkabéco** id est emakume ederra bordeleko anderea da eta gizon ederra urkabeko seinalaria.

A.8. Beharra (Besoin) (R1, 192.orr ezker)

Besteekin bizi beharrak bestelan eduki ez dezakegun elkarganako urrikal-menera garamatza **unde** euskaraz **Beharrác çaharrá merkatura**.

A.9. Jangalea (Besoin) (R1, 208.orr. eskuin) (ik. A.32)

Janari eta edari guztien neurria, beste atsegin eta saltsa guztiak bazter utzi-rik, gosearen betetzean izan behar **unde** euskaraz **Gossia bere jaqui** Horrela ez duk behar baino gehiago janen ez saltsa beharrik izanen.

A.10. Putetxeak (bordels) (R1, 208 ezker)

Bordelak emakume ederrez betetzen dituk **unde** euskaraz **Emazte ederrac bordeléco**.

A.11. Gorde, izkutatu (cacher) (R1, 224.orr. eskuin) (ik. A.24)

Ezta segeturirik agertzen eztenik ez eta gauza izkaturik ezagutzen ez denik **unde** euskaraz **Konseillua sappharpéco / guero ere aguerrico**.

A.12. Bidea (chemin) (R1, 277.orr. ezker)

Bide bakoitzak bere oztopoak **unde** euskaraz **Houná béré gaytçaréqui**.

A.13. Elkarrekiko (commun) (R1, 328.orr. ezker)

Elkarrekiko ontasuna sarritan bazter utzia da **unde** euskaraz **Bidén berho chorien dago** edo.

A.14. **Bi etchétaço horac çaria gora**

A.15. Aholkua (conseil) (R1, 359 orr. eskuin)

Egitekoetan gerta liteken galgarri guztieri ihesi egin nahi duenak ezer egin gabe egonen da **inde Bentura dadinac hartza / Eztadinac ez bartza**.

A.16. Aholku (conseil) (R1, 359.orr. ezker)

Gaitz hori esteiariak daukan sendimendu edo esperantza alferrean datza Holakoaz da abere batzuen gisa usain batzuk ezin jasaten dituztenak edo beste batzuz musikak haserretzen dituenak eta oraino besteez edozein baldintzetan nigar eragiten dietenak direnak **unde** euskaldunak **Azturu gaytzari houna húgu**.

A.17. Eraikuntza (construccion) (R1, 394.orr. ezker)

Segun la diversidad de las naciones assi tuvieron en él dar diversas costumbres **unde** euskaraz **Herric béré légué / etchéc béré aztura**. Herri bakoitzak bere modua dauka eta etxe bakoizak bere patua.

A.18. Hartzedunak (créanciers) (R2, 1.orr. eskuin)

Berdin Fernan Gonzalvez kapitain haundiaz zeinez dion euskaldunak **Ez-téguíala hounguiric gaytzic jin eztaguiá**.

A.19. Ankertasuna (Cruauté) (R2, 18.orr. eskuin)

Jatorriz krudel direnek beren basakeria. ez dute txarrenengan, merezi dutenen gan egiten, baina gehienik jasan dutenen bizkar, euskaraz **Çoura berágo / Harra barnágo**.

A.20. Nahikunde (désir) (R2, 56.orr. ezker) (ik. A.6, A.45, A.59)

Besteen borondatea eta egingaien gertatzea esku balute bezala, batzuk beren buruari hitzematzen dute nahi dutena, **unde** euskaldunak, **Boronthatiac cen-çúa gal**.

A.21. Deabrua (démon) (ik. A.37)

Hala beharrunez esteiari izateak tristura sortzen du hortik euskaldunen atsotitza **Gabéac aharra**.

A.22. Jainkoa (Dieu) (R2, 170.orr.)

Jainkoak eztu iñor sortarazten non ez dion lehenik bere egoeraren eta bere bizitzaren elikatzekoa ematen, **unde** (...) euskaldunak **Nour bere oguiaren gaytzuruaréqui sortcen da**.

A.23. Jainkoa (Dieu)

Ospakizunen eta oparien jaiak Israélitek bezpera gauean hasten zituzten; hortan Eliza kiristikoak judaikoa jarraiki du, horrek esanerazten dio euskaldunari **Besta houña bezpératic**.

A.24. Itzulinguru, gordetze (disimulation) (R2, 212.orr. ezker)

Itzulinguru guztiak (koselüak) denborarekin gaizkiari buruz jotzen dutenean, erabiltzalearen kostuz, agertzen dira, **Conseilluá sappharpéco guero éré aguerrizco**.

A.25. Hizketatu (entretenir) (R2, 319 eskuin)

Batzuek nekez uzten dituzte gogoz gaindi hizketatzen dituztenak horrez euskaldunak dio **Náhi eta nagui**.

A.26. Bekaizkeria (envie) (R2, 320 ezker) (A.33)

Hinc, nour da hiré etsaya? Ene oficiocoá. Zer nahi izanik ere hobe da higuinzaileez bekaiztua izatea ezen ez auzoez eta adiskideez nigarztatua.

A.27. Urtzaina, doministikua (esternuement) (R2, 384.orr. eskuin)

Astakeria bat da erratea urtzain egiten duenari “zure zerbitzari” hobe da **proficiat**, euskaldunak **Houndaguiçula**.

A.28. Gogoa (esprit) (R2, 364 ezker)

Batzutan balio gutikoenak zarata gehienik egiten du, **unde** euskaldunak, **Orgä gaixtoenac carrancáric handiéna**, erran nahi baita gurdi txarrena gutiago urinztatua delako bere burua, egoera onean dagoenak baino, entzunaraz-tenago duela. eta **Garcia, Garcia, gaixto batec eçagutcen din bercia**.

A.29. Harridura (étonnement) (R2, 386.orr. eskuin) (A.45)

Ayes bon coeur en ton adversité, **Ez houn bati botz / ez gaytz bati hotz**.

A.30. Arrotzak (Estrandgers) (R2, 391 eskuin)

Erretorak bizio zuzentzaile arruntak dira baina *euskarazko* atsotitzak dio “Ezta hon parropian jaio erretora, herrian, ez eta nausiarentzat ikuiluan sortu zaldi garainoa” (Ezta euskaraz emana Belak itzulia baizik).

A.31. Iratzarria (Esveillé) (R2, 391.orr. ezker)

Nihil contenuit esuriens, **Gossia bera jaqui**.

A.32. Ogia (pain) (R3, 35.orr. eskuin) (ikus. A.56, A.64)

Heure bertutetik eta heure ganik datozen gastuak baizik ez dituk onak, ziu-rrak eta iraunkorrak horrek euskaldunari erranarazten dio **Ekar badéçac oré-qui / ukénén duc gouréqui**. erran nahi baitu heurekin ekartzen baduk, geu-reakin izango duk.

A.33. Ahaide (parents) (R3, 70.orr. eskuin)

Bekaizkeria aginte, kargu, lanpide edo ogipide berdinekoen artean koka-tzen da, unde, euskaldunak. **Nor da hiré etsaya? Hire officicoá.**

A.34. Mintzatzea (parler) (R3, 70.orr. eskuin)

Arruntean bakoitza gogoko duenaz mintzo da, **unde** euskaldunak **Horac noun miná han mihia**.

A.35. Aihoak (passions) (R3, 86.orr. eskuin) (A.59)

Halan frutatako hartzen ditugu orstoak **unde** euskaldunak **Boronthatic cençua gal**.

A.36. Gabezia (pauvreté) (R3, 96.orr. ezker)

Bakan dela bakea ogirik ez den etxean **unde** euskal zuhurtitza, **Gabiac ähärria**.

A.37. Gurasoak (pères) (R3, 165 ezker) (ik. A.45, A.58)

Agian hoberenak izanen dira hoberenetarik sortuak eta euskaldunak dio **Acitic bihia eta çourétic ezpála** (gaskoinez de nature put lou bouc, sortzez usain dario akerrak).

Egun 1648 martxoaren 2.an (aujourd'hui 2 de mars 1648) (R3, 211.orr.)

A.38. Lehenak (premier) (R3, 248.orr. ezker)

Muñoaren, zubiaren, itsasdarraren, mendate baten lehen hartzaileak etsaiari abantaila du (Behiak belardira doatzanean, lehenak aurrean) eta euskal atsotitzak **Lehénac bi éscu**. Israelen lehen jaio neskak sakratuak zirelako haien saindutasuna uzta guztietara hedatzen zen, lehenen eta osoaren batasunaren gatik hortaz dio euskaldunak zaharrenen alde **Lehénac bi escu**.

A.39. Opariak, presentak (présants) (R3, 257.orr. ezker)

Badira ematen dutenak beste ontasunen erakartzeko. **Jaurico presentac escúa ondoan**.

A.40. Opariak (présants) (R3, 257 ezker)

Zeren opariak maitasuna erakartzen duten **hinc** euskaldunak **Saintuéc éré olio náhi**.

A.41. Handinahia (présomptueux) (R3, 258.orr. ezker)

Hala erraten da gutienik "urinzatu orgak du karranka handiena egiten (ik. A.30).

A.42. Bedatsa, udaberria (printemps) (R3, 287.orr. ezker)

Orduan udari jarraitzen dio larrazkenak udaren gorria eztituz, gau zerenaren freskura hedatuz, baita tantakatzen duen ihintzekin eta ekartzen dituen euriekin haroaren beroa geldituz **unde** euskaldunak **Jon done Justi**, (itxuraldatze jaja da) / **hegalac bousti**.

A.43. Auzia (proces) (R3, 296.orr. eskuin)

Porque los porfidiosos hazen el manto de los pleytos, **Auzia galgárri duçu / gatzé déno utçaçu.**

A.44. Ekoizpen (produccion) (R3, 298.orr. ezker)

Ekoizpenek arruntki beren jatorria jarraikitzen, **Phicac gará gará / umiac hala hala, Otsoa nolaco / umia halaco**, halaber, **Çourétic ezpalá.**

A.45. Joritasuna, senteria (prospérité) (R3, 289.orr. eskuin?)

Joritasunean apal izan eta iduritu behar da, **Ez houn bati botz / ez gaytz bati hotz** dio euskaldunak.

A.46. Atsotitzak (proverbe) (R3, 290.orr. ezker)

«Ez da komeni beti atsotitzetan bizitzea».
«Atsotitzak egiaren lehengusuak dirade».

A.47. Azeria (renard) (R3, 389.orr. ezker)

Azeriaz esaten da, madarikatuago eta egitekoak hobekiago egiten dituela, **Çaldi maradikatuc, bilhoa leiñ**, batzuei hala ongi gertatzen zaie, bekaiztuak direnean.

A.48. Atsedean (repos) (R3, 398.orr. eskuin)

Batzuek ezin dute gozatu ez eta jasan besteek goza dezaten eta hortaz euskaldunak dio **Ez horac çahia jan, ez oilloer utzy.**

A.49. Aberats (riche) (R4, 11.orr. ezker)

Bere nasaitasunean ongi bizitzea (esatea) egia horren aldeko laudorio handiena da **unde** euskaldunak **Aberatsac oro çuhur.**

A.50. Aberastasun (richesse) (R4, 21.orr. ezker)

Zorretan eta kontratuetan datzan aberastasuna ez da segurra hori ikusiz dio euskaldunak **Oré hoüna dühürü bilha daguiala**, erran nahi baitu heure on gutzia dirutan bilaka dadila.

A.51. Aberastasun (richesse) (R4, 21.orr. eskuin)

Salerosleek aberats eritziak, izan ditezen hobe da ustea hamar mila ezkutuz aberats direla nahiz ehun baizik ez eduki ezen ez milaka eduki eta krediturik ez, horretaz (...) euskaraz **Dakoussanac gouré beztia eztaquique gouré beharra.**

1649 (R.4. 69.orrían)

A.52. Jakitea (savoir) (R4, 69.orr. ezker)

Ez dakigu non gerta gintezkean ez eta zer atzapar artean eror **unde** euskaldunak **Ezterragúla çoin hourétaric edanen dúgún** id est ez dezagula erran zein uretarik edanen dugun.

A.53. Badaki (sait) (R4, 69.orr..ezker)

Kuia ustelarekin entsalada onik ez, **unde** euskaraz. **Halzez matraz hounic ez, id est** Haltz oholek ez dute hanbat balio.

A.54. Elkariduri (semblable) (R4, 129.orr. eskuin)

Bakoitzak bere irudikoa dazagu **inde** euskaldunak **Garcia, Garcia, gaixto bátác, badiaçagu bercia**.

A.55. Berea (sien) (R4, 166.orr. ezker)

Gure meneko den ahalmena, baratzen zaizkigun indarretan datza eta gure esku dira, **inde, Ekar badeçac oréqui / ukénen duc gouréqui**.

A.56. Ondoko (successeur) (R4, 212.orr. ezker)

Formosoe occursus mulieris demonis arma parthorum tanquam dira sagitta, **hinc** euskaldunak **Guiçon ederra urkabéco, emazté ederrá bordeléco**.

A.57. Herri xehea, herenbesoa (le Tiers Etat) (R4, 264.orr. ezker)

Adarrak bere enborratik hartzen du sapa eta zakurrak sortzez usaina horregatik euskaldunak **Çourétic ezipalá, eta Phicac gará, gará, umiac hala hala, halaber Otsoa nolaco, umia halaco**.

A.58. Garaitua (vaincu) (R4, 306.orr. ezker)

Garaituari denak erasotzen, unde **Bago eroriala egur eguiten**.

A.59. Banagloria (vaine gloire) (R4, 306 eskuin)

Batzuk begi zoraturaz begiratzen dituzte aurrean ikusle direnak jakiteko beren zorionak zenbat jakile dituen, unde euskaldunak **Borondatéac cençua gal**.

A.60. Zahartasuna (vieillesse) (R4, 364.orr. eskuin)

Çahar nendin / Çora nendin, haatik ez da beti eta denekin egia.

A.61. Bat (un) (R4, 390 ezker)

Halatan duintasun eta ontasunez goihenean dagoen gizona, hesi habe baten antzekoa da, kenduz geroz dena erortzen den gisa **unde** euskaldunak **Bat milaren eta ez mila baten**.

A.62. Bidailari (voyageur) (R4, 410.orr.)

Altabada itzuliko denean edukiko duen maitasunaren gatik bere bihotza gogamen osoan egoten da, **Hinc** euskaldunak **Orhico choria, orhin laquet**. Txori bakoitzari bere kabia eder.

A.. (R4, 411.orr.)

Etxeko probetxu da garaiz egin urteko janari bilketa; non eta hobeki ateratzen delako gauza guztietan ez garenean bortxatuak edukitzera, **unde** euskaraz **hinc Hil ouste gabean gagneco escoüa karioénic item ekar badeçac oréqui, ukénen duc gouréqui**. Azkenean adiskideen askatzeko bidea da.

Le 28 d'avril 1650 (**1650.ko apirilaren 28.an**) (R4, 427.orr. azken orrialdean).

Aurkitu berri ditudan hamabiak

1. **Aberatsac oro çuhur (A.50)**
2. **Auçia galgarri duçu, gazte déno utçaçu (A.44)**
3. **Bago eroriala, egur eguiten (A.58)**
4. **Beharrác çaharrá merkatúra (A.8)**
5. **Çoura berago, harra barnago (A.20)**
6. **Çourétic ezipalá (A.38, A.45, A.57)**
7. **Eytzac hoüna hobiagati (A.2)**
8. **Ezteguiala houngric, gaytzic jin eztaguiá (A.19)**
9. **Herric béré legué ethec beré aztura (A.18)**
10. **Horac noun miná, han mihia (A.35)**
11. **Nour bere oguiaren gaytzuruaréqui sortcen da (A.12)**
12. **Saintiec éré olio nahi (A.41)**

Aurkitu ez ditudan zortziak

Dakizueenez Clément-Simon-en denboratik honat Belaren liburu bat galdu da eta hor zeuden naski aurkitu ez ditudanak eta frantses idazleak ediren zituena. Non zitezkean asmatzeko —nahiz ezten aurkibiderik— idazleak sarritan darabiltzen **vide** delakoez baliatu naiz eta galdu diren gai batzu agertzen dira:

1. **Asek gose ezta kousa (uste dut “faim” kronikan zela)**

2. **Bicitce gaytzac hil nahia** ("morts" kronikan zegokean)
3. **Xazko ouhounac diren aurthencoen urkaçale** ("larrons" kronikan)
4. **Eltçoac ussuric gaytz** (non?)
5. **Errumera çouenac, lekuya gal** (non?)
6. **Hiladi, laydadi** ("morts" kronikan)
7. **Hobe da laydo laburra ecen ez damu luzea** ("louanges" kronikan)
8. **Min duyenac bouharra jo** (non?)

Denetara 64. atsotitz daude, eta beste erranaira batzuk ere. Oihenarteren bildumarekin erkatuz uzta txikia, baina baliosa pentsamolde oso baten barnean daudelako eta batzuk ez ezagunak.

ONDORIOZ

Bere liburuaren sarreran ematen duen bibliografia iruzkin dezadan.

1. Oihenarte-ren Notitia baizik ez du aipatzen, maiz berritan errango dituela gauza berdinak bere buruaren zuritzeko, Oihenartek halaxen egiten duela bere obran gaineratuz.

2. Jesuistak kritikatu arren, Aita Moret-en obra goraiatzen du eta euskaldun ospetsuen artean Loiolako Eneko eta Xabierreko Frantses jartzen ditu. Calvin eta Leizarragaren testurik ia ez du erabiltzen. eta Huarterena bai oparoki.

3. Atsotitzen erdiak baino gehiago ez dira Oihenarten bildumetan agertzen, L. Mitxelenak hori erran arren; gainera Bela-k beti ematen ditu zuberearen fonetikaz Oihenartek erdizka edo osorik nafarreraz ematen dituelarik. Gainera bietan aurkitzen diren atsotitzak ere hitzez desberdin dira maiz. Hona adibideak.

J. Belak: **Aurthen amore berriagati, eztuc utçiren çaharra.**

A. Oihenartek: **Adiskide zaharra berriagatik eztutzala.** Asmo berdinentzat itxura desberdina.; Belarena biziago.

J. Belak: **Asek gose eztakusa.**

A. Oihenartek: **Aseak gosea eztakusque.** Belarena, mugagabean emana, orokorrigo da.

J. Bela-k **Konseillua sappharpeco, guero éré aguerrizco / aguerrico.**

A. Oihenartek: **Koseilu caparpeco, ager daite azkeneco.** Hemen Oihenart herrikoiago da, ezen orain ere zubereraz "koxelü" ez da aholkua, baina ahapeko segeretua.

J. Bela-k **Errumera çouénac lekuya gal.**

A. Oihenartek: **Errumara joan zedinak, bere lekia gal zezan.** Hemen Bela motz eta trinkoago.

J. Belak: **Hiladi, laydadi.**

A. Oihenartek: **Hil adi, alaba ayte.** Trinkoena eta neurtua Belarena, naski.

J. Belak: **Jaurico presentac esküa ondoan.**

A. Oihenartek: **Jaureguico emaitzac eskea ondoan.** Herrikoiena, berriz Belarena.

J. Belak: **Elçoac ussuric gaytz.**

A. Oihenartek: **Eltzoz ere elhia gaytz.** Oihenartek “elhe” hitz zaharkitua darabila, Zuberoan erran nahi horrekin ez erabilia “saldo” erraten delako; “eli” hitzak “pare” eta “batzu” esan nahi du.

Belak, bilketa urteak kontutan hartuz 16 atsotitz ditu Zalgizekin berdinxka, halaber Oihenartenarekin 16 baina bi horienak nafarreraz; beste guztiak eta ia beti zubereraz (24) Belaren bereziak. Galdera lizateke biek ez ote duten Zalgize zaharragoaren bilduma ezagutu, ezen antzeko eta berdineko gehienak Zalgizen ere irakurtzen baitira (ikus azkenean alfabetoan eman indexa).

J. Belak: **Eytzac houna hobiagati.**

B. Zalgizek: **Utzac hona hobiagatic.** Belak darabila “eitzi” zubererazko aditz zaharra.

J. Belak: **Biçitce gaytzac hil nahia.**

B. Zalgizek: **Biçi gaitza hil dano.** Ez dute erran nahi berdina.

J. Belak: **Çoura berago / harra barnago.**

B. Zalgizek: **Hurra berago / harra barnago.** Hemen dakusagu biek ez zutela iturri berdinetik edan edota oihan berdinean etzirela ibili.

J. Belak: **Erkida berho / chorien dago.**

B. Zalgizek: **Erkida berho / choriendako.**

J. Belak: **Orgäric gaixtoénac carrancaric handiéna.**

B. Zalgizek: **Orgak charrago / carranca handiogo.** Bela zuberotarrago “Gaixto” hitzaren erabilera “txar” hitzaren ordeztu, Zuberoan ematen da.

Alabaina bere eskuidazkian urteguna sarritan ager ez baledi ere erakusteko Oihenarti eskuidazkian lehendu zitzaioela, erkatze horrek erakuts lezake bere laburrean Belak batzutan Zalgizek baino zuberotarrago eta zehatzago ematen dituela erran zaharrak. Belaren ekarpena beregisakoa dela, jakingarria eta sarritan berria.

Okerrean zegoen eta lasterregi idatzi zuen beraz L. Mitxelena zionean bilduma horren interesa bakarrik zubereraz izatean zegoela eta atsotitz horiek Oihenarten obran zeudela, alderantziz idatziko dugu hurbil erdiak ez tirela beste inon aurkitzen eta Belaren askok jatorrizko itxura hobea dutela. Berrogeita hamasei atsotitzen bilduma horri gainera genezake Belaren lema **Ez nahi ahal dudana, ez ahal nahi dudana.**

4. Hizkuntzaren aldetik

Dagoeneko kasu bakoitzarekin ikusi dugu Belaren zuberotar hiztegia, bere arkaismoekin: **biden: erdi, azturugaitza: malerusa dohakabea, kriketz: batbatean** (Basaburuan oraindik erabilia, krikez egin); **ore: heure; hurran: hüllan, hurbil, dühürü: dühülü, sos; hongui: hounki, ontsa, botz: pozik, Jon done Justi: San Justo** eta batikbat aditz trinkoen erabilera, geroztik Zuberoan hurbil galdua dena. Agian emazte manexinari entzunak baditu “nafar itxuran” bi esaldi, behin **Borondateac cençua gal** aldaera **Boronthatiac cençua gal** bi aldiz aurretik erabili duelarik. Gero **Gabeac aharra** behin “ea”rekin, eta **Gabiac aharra** beste behin “ia”rekin.

Fonetikan ü eta u bereizten ditu frantses grafiarekin emanaz “u” eta “ou” baina sudurkari denean “ü” idazten du: **hugü** eta bi puntuak ere ipintzen ditu “a”: **ähärra** eta i sudurkarietan = **mihia**. Susmo hori zuen L. Mitxelenak zionean (*u* lleva probablemente en el original algún digno diacrítico: esa -ü es nasal en suletino). Halaber **orgä** grafiak “ä” sudurkariarekin erakusten digu, hor galdu den “n” baten ondakina.

Belaren lana baliagarri zaiku zeren Zalgizek eta Oihenartek beren atsotitzak fonetikaz eta hiztegi nafartzeko ohitura baldin bazuten gure Sorhoetarrak zübererarena “xüxen” ematen du. Kontsonante aspiratuekin, hala nola **-ki** (-qui) atzizkia, ez **kin, -er, ez -eri**. Den bezala utzi dugulako ohartu behar da gure **“k” “qu”** edo **“c”** idazten duela (**eztaquique = eztakike, laquet: laket, es-cua: eskua**) berriz, gure **“kh”, “k”,** hala nola (**eztakoussa: eztakhusa, ekar: ekhar, uken: ukhen**). ez du ordea arazorik beste kontsonante zaharrekin eta “ph” agertzen da **“pharadusutic”, “th” boronthatiac, “lh” “bulhar, bilha”, “rh” “berho”, “Orhi”**.

Konsonanteen grafian euskal “esea” guk bezala “s” edo “ss” idazten du (**besta, eztakousa**), baina ez “zeda”: azken hau hitzen erditan eta azkenean guk bezala “z” (**ez, gaytz, ezpala, auzia, azitic**), baina hitzen hasieran “ze zedillardun” “ç” ematen du (**çoura, çahia**). Afrikatua “ch” idazten du (**choria**) eta frikatibua “x” (**xazko, gaixtoa**) zuberara zaharraren eta oraingoaren bereizitasuna delarik hitzen hasieran batzutan afrikatuak daudela.

Hain zehatz ez dena da gure idazleak darabilan azentu sistema, zeren batzutan bokal guztietan ipintzen ditu ahozkeraren zuripenik gabe baina askotan ere zubererazko azentu tonikoaren lekuan **Ez gaytz bati hotz, ez houn bati hotz**, edo **Emazte ederra bordeléco, guizon ederra urkabéco, Besta houna bezperatic Gabiac, ähärria** eta holako beste batzuk.

Gure irakurketarekin L. Mitxelenak eta biok zuzendu genituen huts gehienak Clément-Simonen hutsak zirela konturatu naiz, baina aitortu behar dut **eskua** dela irakurtzen ez **eskea.**; «es dudoso» zion Mitxelenak eta testurik gabea suposatu zuen Clément-Simonek “gauregui” irakurria **“ihaurequi”** zela, alta argiki irakur liteke **gouréqui.** eta holako bat edo beste.

5. Atsotitzen erabileraz euskal pentsalarien idazkietan

Gure idazlea garaiko filosofoa dugu, ez bakarrik ideien aldetik, idaz tan-kerarenetik ere. Filosofoek usu erabili ohi zituzten literatura baliapideak ditu. Jakes Belakoak, konparaketak, metaforak, metonimiak, alegoriak, sinboloak darabiltza eta guk hautatu gai honetan erran zaharrak.

Kanpotar atsotizentzat erran zahar bildumak eskupean zituen eta aipatzen ditu, baina erakutsi dugun bezala, euskarazkoak beregisakoak ditu, nahiz batzutan beste bildumetan agertu. Kontestu eta batzutan testu luze batek argitzen digu erran zaharra nola ulertu, euskara geroztik aldatuxe baita eta gure euskal kultura giroa ere ezpaita berdina. Nork daki Jon Done Justi Urriaren 14.ean dela orain?

Jakes Belakoak izan zuen euskaraz aintzineko bat. Agian hainbeste atsotitz erabiltzen ez zuenak, Axular, bere *Gero*-an eta Belak aipatzen du. Baina haren ondotik ikaslea izan zuen, eta ziur nago, orain, testuak erkatuz ikasle horrek begien aurrean zeukala Belaren lana. Jusef Egiategi da XVIII.mendean Belaren ondokoa. Nahiz ez zen protestantea Jusef, badu bere erakaslearen zehaztasuna, araztasuna, gogortasuna. Egiategik dauka, argitara gabea eta bi eskuidazki nahasietan zirriborro amaigabeen *Tablètes* horien antzekoa, *Mosde Etxeberriren gogamenak* bi hizkuntzetan idatzia. Aurretik Belaren eta Oihenarteren gorai-pamena eginaz, baita Oihenarteren zuhurtitzak kopiatuz. Erran nahi baita Jakes Belakoaren birilobaren liburutegian, lan egiten zuela Egiategik eskupean zeuzkala, Bela zaharraren obrak.

Jusef Egiategik liburu hori Joan Felipe Belakoaren liburutegian irakurri zuen, eta konturatu naiz euskaraz eman zituela “*Tablètes*” etan hartu anekdotak (Ortzaizeko erretorgoarena, Margarita eta Ana erreginagaien ametsa, ia hitzez hitz). Egiategiren hirugarren liburua argitaratu eztena ere Belaren antzera egi-na da, atsotitzak eta aipamenak bilduz eta erabiliz. Oihenarteren, Zalgizen eta Belaren ehundakako atsotizetarik kanpo besterik aurki litazke, baina XVIII.mendekoak XVII.mendekoak bezala ezta zerrenda hutsa ematen, zuhurtitzak filosofia egiteko erabiltzen baizik. Halaber biek Bela II. nak eta Egiategik Larramendiren hiztegia erabili zuten.

Egiategik Jakes Belakoak haina atsotitz darabila eta altxor bat dago hor, baina sekulan norbaitek argitaratzen balitu, otoi, lehenik ipiñi dezala eskuidazkiaren zein orrialdeetan dagoen zuhurtitza. Bigarrenik beren testuinguruekin eman ditzaten bildutako zuhurtitzak. Hamazazpigarren mendeko filosofo askok erran zaharrak erabiltzen zituzten, baina literatura baliapide horiek ez dira ohi-turetatik galdu, ezen aski da Eduardo Gil Beraren edozein libururen hartzea ikusteko erran zaharrak baduela gure gizaldian bere egitekoa. Atsotitzak oraindik literatura baliapideak izan litezke, eta politika esloganek baino zuhurtzia gehiago eduki. Oxala!

Ez zen agian Jakes Belakoa kultura ararteko ona izan, ez Axular bezain-beste, Euskal Herriak sinesmenean beste biderik hartu duelako baina etzen euskal kulturatik kanpo pauetar ikerlari harek dionaren alderantziz baizik. Naski higanauta zenaz gain eta aitonen seme, nahiz berria, euskal herrixehetik urrunxka zen. Gero ez dut uste sekulan jakinen dugunik hau kiristino kultura da, hau latinenetik, hau greziarenetik hartua, dagoeneko gure artzain eta laborariak, europar kultura baten barruan zeudelako eta euskal kultura harremanetaz bizitzen delako, beste kultura guztien gisa.

Egia da garai haietan ahozko herri kultura eta kultura jasoa eskolatua be-reizten hasia zela, baina euskal atsotitzek usu erakusten digute, frantses ber-dinekin ematen direnean, herrikoiago direla, erran nahi baita batzutan ezez-korrago, latzago euskaldunen ikuspegia, idazleak gogotik onartzen eta goraiatzten duena.

Hona nire lanaren azkena 1996ko Urriaren 12.an Jakes Belakoak zion eran: Hobeki eta gehiago egin dezatela ondokoek Halabiz.

Bildu atsotitzen indexa grafia berrian

Transkribapen honekin ezin ditut denbora berean azentu tonikoak eta bokal sudurkariak markatzen, eta gorago aipatu eta aztertu Belaren arauekin abiatuz egin dut. Gizenean jarri ditut beste iñon aurkitu ez ditudanak, orainarte. A. nire aipamenak, G.C.S. Gustave Clément-Simon ek salbatuak.

A.50.—Aberatsak oro zühür.

(G.C.S.).—Asek gose eztakhusa (Oihenart).

A.4.—Aurthen amore berriagatik eztük utziren zaharra (Oihenart).

A.44.—Auzia galgarri düzü, gazte deno ütazü.

A.38.—Azitik bihia eta zuretik ezpala.

A.17.—Aztürügaitzari huna hügü.

A.58.—Bago eroriala egür egiten (Oihenart berdinxka).

A.61.—Bat milaren eta ez mila baten (Oihenart berdinxka).

A.8.—Beharrak zaharra merkhatura (Oihenart).

A.23.—Besta huna bezperatik.

A.14.—Biden berho, txorien dago. / Erkida, berho txorien dago (Zalgize).

A.15.—Bi etxetako horak, zaria gora (Oihenart).

(G.C.S.).—Bizitze gaitzak hil nahia.

A.21.—Boronthatiak zentzüa gal.

A.24.—Konseilüa sapharpeko, gero ere agerrizco (Oihenart).

A.5.—Kriketz eri, kriketz sendo.

A.51.—Dakusanak gure beztia, eztakike gure beharra.

A.2.—Eitzak huna hobiagati (Zalgize).

A.33.—Ekhar badezak oreki, ükhenen dük gureki.

- (G.C.S.).—Elzoak üsürik gaitz (Oihenart berdinxka).
- A.3.—Elizatik hürranena, pharadüsütik urrunena (Oihenart).
- A.7.—Emazte ederra bordeleko / gizon ederra ürkhabe (Oihenart).
- (G.C.S.).—Errumera zoenak, leküia gal (Oihenart).
- A.49.—Ez horak zahia jan, ez olloer ützi (Zalgize, berdin).
- A.29.—**Ez hun bati botz, ez gaitz bati hotz.**
- **Ez nahi ahal düdana, ez ahal nahi düdana** (Belatarren lema).
- A.19.—**Eztegiala hungirik gaitzik jin eztagia(n).**
- A.52.—**Ezterrägüla zoin huretarik edan dügün.**
- A.21.—**Gabiak aharra.**
- A.55.—Garcia, Garcia. Gaixto batak diazagük berzia (Zalgize, Oihenart).
- A.6.—Gosia bere / bera jaki (Zalgize, Oihenart, berdin).
- A.54.—**Haltzez matraz hunik ez.**
- A.18.—Herrik bere lege, etxek bere aztura (Oihenart).
- (G.C.S.).—Hiladi / laidadi (Oihenart).
- A.62.—**Hil ustegabearen gañeko ezkoa kharioenik.**
- (G.C.S.).—**Hobe da laido labürra, ezen ez damü lüzea.**
- A.1.—**Hobe da nekezia ezi ez soberania.**
- A.12.—Huna bere gaitzareki (Zalgize).
- A.35.—Horak nun mina, han mihia (Zalgize).
- A.40.—Jauriko presentak esküa ondoan (Zalgize, Oihenart, berdin).
- A.43.—**Jondone busti, hegalak busti.**
- A.39.—Lehenak bi eskü (Zalgize).
- (G.C.S.).—**Min duienak bulharra jo.**
- A.25.—Nahi eta nagi (Oihenart, eta Vulgata *Vult et non vult, piger*).
- A.22.—**Nur bere oguiaren gaitzürüareki sortzen da.**
- A.26.—**Nur da hire etsaia? Ene ofiziokoa.**
- A.51.—**Ore huna dühürü bilha dakiala.**
- A.28.—Orga gaixtoenak, kharrankharik handiena (Zalgize, Oihenart).
- A.62.—Orhiko txoria, Orhin laket (Zalgize, Oihenart, berdin).
- A.45.—Otsoa nolako, ümia halako (Zalgize, Oihenart).
- A.45.—Phikak gara, gara, ümiak hala hala (Zalgize, Oihenart berdinxka).
- A.41.—**Saintüek ere olio nahi.**
- (G.C.S.).—Xazko uhuñak diren aurthenkoen ürkhazale (Zalgize, Oihenart).
- A.60.—Zahar nendin, zora nendin (Oihenart).
- A.48.—Zaldi maradikatuk bilhoa leñ (Zalgize, Oihenart, berdin).
- A.20.—Zura berago / harra barnago (Zalgize berdinxka).
- A.38.—Zuretik ezpala (Oihenart).

REFRANES Y SENTENCIAS: ZENBAIT BALIABIDE MNEMOTEKNIKO

Durango, 1996-XII-06

Juan Mari Lekuona

Mintzaldi honen helburua da: lehenik, atsotitzak, “zahar hitzak” eta “zuhur hitzak” esango genukeena Oihenarten esaldi bat erabiliz, ahozkotasunaren alderdi batetik ikustea, hots, artifizio erritmikoaren aldetik; eta bigarren, artifizio horren zenbait baliabide markatzea, memoriaren euskarri direnak eta atsotitzen estilistika markatzen dutenak. Bestalde, txosten honen zeregina da, Herri-Literatura azpi-batzordearen eginkizunari atxikiz, ahozkotasunaren eta literaturtasunaren alderdia kontuan hartzea, batzordearen egitekoari —puntualki beberen— arreta jarritz.

1. Artifizio erritmikoa

Ahozkoari artean oso gogoan hartutako alderdia da hau, osagai hauetan finkatzen delarik: puntua, erritmoa, kantua eta gorputz-espresioa. Jakina denez, osagai hauek zuzeneko zerikusia dute literatur testuaren iraupenarekin, pieza gal ez dadin; eta zeresanik ez literatur ereduaren edertze eta estetizazioarekin.

Testuari iraugailuak ezartzea bezala litzateke artifizio erritmiko hori. Osagai horiek bereziki poesian dira horrela. Baina atsotizetan berez eta nahitaez, ez dagoenez ez doinurik eta ez balantzerik, aipagarriak zinez, horiez gainera, figurak, tropoak, morfo-sintasia eta estilistika arloa orokorki hartua. Hitzaren efektu iraukorrak oroitzen. Arrazoi pedagogikoak ere egon daitezke artifizio erritmiko horri arreta jarri diezaiozun. Denok ditugu gogoan atsotitzen egitura neurtuak. Baina ez hori bakarrik. Hor daude bertsotan gorputzutako dotrinak, matematika erregelak ikasteko kantineak, kontaeretan finkaturiko formula paralelistiko beti berdinak, bertsotan emaniko legeak, erromantzeen lelo-kantuak (ez ahantz erretratu errepika dela, estribilloa), eta poesia epikoa bera ere, bertsotan paratua oroitzen hobeto gorde dezaten herritarrek. Hitz batean, herri mailako artelariak —bertsolariek, kantariak, ditxolariak, eta abarrek— darabilten eskola apodiktikoa, idatzizko estiloan ere liburu sapientzial jakingarriak sortarazi dituenak (1).

(1) J.M. LEKUONA, *Ahozko euskal literatura*, Erein, Donostia, 1982, 28-29 or.

2. Paremia eta mnemoteknia

Jean Haritschelharrek, bere lan interesgarri batean, "Paremiologia eta mnemoteknia" izenekoan, beste oharkizunen artean, jasotzen du Oihenartek Aristotelari buruz dioena, *buruz gorde ahal izateko asmatuak eta antolatuak izan direla esaera zaharrak, bere egituraren arabera* (2). Eta hori eransten dio gainera *egiaz irakaspen bat dakartela esaera zaharrek, eta horrengatik gai direla gogoan hartuak izan daitezzen; baina badituztela ere alderdi formalen aldetik dohain eta gaitasunak oroit-erazak izateko* (3).

Aristotelek dioenarekin jarraituz, esaten digu, besteak beste, esaera zaharrak gorde izan direla laburrak eta atseginak direlako. Eta bi alderdi horiek hartzen ditu, (laburrak eta atseginak izatea) azterbidetzat, atsoitzak arakatzeko. Guk geuk orpoz-orpo jarraitzen ez badiogu ere eskema honi, funtsean beti agertuko zaigu eta ikuspegi egokia emango ere digu, gure azterketaren hari nagusiak hasieratik gogoan izan ditzagun.

3. Esaera zaharren deskripzio orokorra

Definizio moduko bat ematea ezinbestekotzat jotzen dugu lan honetan; definizioa ez bada ere, deskripzio xehe bat behintzat, gure urratsok bideratuko dituena.

Esaera zaharrak, aforismo eittea duten esaldi laburrak dira, estilo bereziz markatuak eta erabilera jakina dutenak bai eguneroko mintzairan, bai ahoko estilo jasoagoan, bai idatzizko estiloan.

Aforismo eittea esatean zera dugu gogoan: esaldi laburra, gehienetan jakinduri ideia bat daramana edota gogoeta etiko-estetiko bat.

Estilo berezia aipatzean, esan nahi dugu baliabide literario jakinak erabiliz mamitua dela, batez ere nabarmentzen direlarik baliabide metrikoak, erretorikoak, morfo-sintaktikoak; eta produktu hori ulerterraza ezezik erabilerraza ere badela, bai mezua igortzerakoan, bai hartzerakoan.

Esan nahi dugu estilo baloratibo baten adierazgarri direla, eta poesia gnomicoaren zati, literatur espresioaren formarik zaharrenetakoa, kultura guztietan eman ohi dena.

Erabilerari begira esan dezakegu, esaera zahar horien lekua poeman, nahiz ipuinan eta gainerako generoen azkencan dela; baina ez da harrizkoa hasieran

(2) J. HARITSCHELHAR, "Parémiologie et mnémotechnique. L'exemple basque", *Bulletin du Musée Basque*, 133 (1992), 49-66 or.

(3) A. OIHENART, *Les proverbes Basques*, Facsimile de la edición de 1657, Tirada aparte de RIEV 26 (1929) eta 27 (1930).

edota erdialdean aurkitzen badira, sententzien erabilerari atxikiz. Epifonemak direla bertso gintzan, bereziki bertso larritzan, bakarkako bizipena orokor bihurtuz, enfasi batez diskurtsu poetikoa bukatzen dela. Gauza bera gertatzen da esaera zaharra ipuin baten erremate sententziduna gertatzen denean ere: *gizona beti gizon, saskitik ere*, esaldi ezaguna, aurretik ipuin batez argitzen dena, eta esanahia eta erabilgarritasuna ematen diona, eta epifonemaren enfasia. Eta erabiltzen dira solasaldi arruntean, mintzaldiaren apaingarri gertatuz; eta balio dute norbaiti sinestarazteko, eta irakaskuntza asko gordetzen dituzte gure biltzan nola portatu jakin dezagun.

Beraz aforismo eitte hori, estilo berezia eta erabilera jakina kontuan eduki beharrezko alderdiak dira gure txosten honen helburua tajuz beteko bada.

4. Baliabide mnemotekniko nagusienak

Txosten mailakoa denez nire ekarria, lehenengo 50 *zahar hitzak eta zuhur hitzak* hartu ditut aztergai. Eta liburuko testua bere osoan aztertzen ez bada ere (4), laginak erakus-aukera bat ematen digu, gure helburuak nahiko ongi betetzen dituen, eta ikuspegi ohargarria eskaintzen duena.

Lehenik puntua dago, artificio erritmikoan hain garrantzizkoa dena. Bere egitekoa gehiago zehaztu dezagun. Esaldien klitxeak gauzatzen ditu. Esaldien formula paralelistikoak markatzen. Hitzen tratamendu egokiena ateratzen eta erabiltzen. Errealitatea hotsez adierazten. Kontrastearen aldeak markatzen. Errealitatea dakarren hitzak, portaera ere errimaz finkatzen, baita balioztatzen ere. Beraz puntua, formaren eta edukinaren akordagarri baliotsua dugu.

Bigarrenik, erritmoa aipatu behar, etenaldien jokoak, silaben kopuru jakina; doinu prosodikoaren gorako multzo-silabikoak eta behekoak; bertso-lerroen berdintasun fonikoa edota antzekoa; esaldiaren osotasuna buruz jasotzeko hain lagungarri ona.

Hirugarrenik, figura erretorikoak aipatu behar, batez ere ohikoenak. Hauek, espresio argia eta espresio ederra ezezik —poetikari dagokionez—, esaldiko osagaien egituraketa dakarte, osagai horiek ongi aukeratuz, ongi kontrajarrituz, ongi metatuz, ongi mailakatuz. Eta hori guztia oso garrantzizkoa da, memoriari lagundu nahi bazaio, euskarririk eman nahi bazaio eta iraungailurik, esaldien zergatia eta helburua adierazten dutelako eta gorpuzten.

Tropoak ere aipagarriak dira zinez: metaforizazio asko erabiltzen da, etika zein estetika, naturan eta giza industrian oinarritua eskaintzen denez. Irudi ordezkariak daude, gero irudi fokala erakusten digutenak. Eta xehekiago gauzak

(4) J. URQUIJO, *Refranero vasco. Los Refranes y Sentencias de 1596*, Colec. Auñamendi, 40 eta 56 aleak, Donostia, 1964 eta 1967.

aurkeztuz, asko ageri da konparaketen erabilera ere. Irudietan naturatik bizitzarako transposizioak maisuki eginez. Hau da pentsamoldea: nola naturan, hala berean giza bizitzan, giza legean, jendetasunean. Adibideen erakusbide jakin eta eraginkorra.

Morfo-sintasia mailakoak ere ezin dira ahaztu. Askotan esaldien morfo-sintasian gauzatzen delarik figura erretorikoen oinarria. Irudi luke badutela elkarrekin zerikusi esaldien morfo-sintasiak eta figuraren nolakotasunak. Hala nola disjunktibean bereizketa, kontsekutibean logika eta kausalitatea, kontzesibean erretorika mintzakideari berea aitortuz, eta norberarena areagotuz. Baldintzazkoen xehetasuna, errealismoa, logika. Hitz batean, perpausen esanahiak areagotzen du gogoan gordetzekoaren finkagarritasuna, heldugailua; memorian ezartzeko indar psikologikoa, atsoitzetan bere eragin jakina duen egitura gramatikazkoa.

5. Eredu aipagarrienak sailean

5.1. *Izenak izana darama*: sail honetakoak aipatuko nituzke lehenik.

- 88: O laso, / gitxi batzuk i-lako (5)
- 92: Zelangoa da Butroe / orok dakie
- 270: Muxika / arerioakaz agika
- 284: Aramaio / dabenak ez lemaio
- 386: Albia / deunga dustien abia

5.2. *Erritmoa gogoan*

- 17: Buruko andia / ta jate urria, 6+6 silabez
- 22: Zaarrago, / ikaskurago. Bi osagaiz tajutua, 4+5 silabez
- 11: Baratzea ta usategi / aberasgarri. Hiru osagaiz, 8+5 silabez
- 4: Abenduko lañoa / euria edo egoa, 7+8 silabez
- 10: Aspertu banekio / asper lekiket, 7+5 silabez
- 14: Egia latz / ta labio, 4+4 silabez
- 26: Agura onari / ez atea itxi, 6+6 silabez

(5) ID., *ibid.* Atsoitz bakoitzaren aurrean bildumako zenbakia jartzen dugu, bertako ortografia errespetatuz.

- 31: Az adinon / ta aza on, 4+4 silabez
- 32: Anbiolako supitak / egiak, 8+3 silabez
- 45: Laarrik / ez onik, 3+3 silabez
- 46: Ustrail onak / ardao ona, 4+4 silabez
- 8: Beien erroa jatxiago, / luzeago, 9+4 silabez
- 28: Dagenileko euria / ardaoa ta eztia, 8+8 silabez.

5.3. *Figura erretorikoak gogoan: osagaien egituraketa markatuz*

5.3.1. *Metaketak*

- 3: Aberatsok jaia daude /txiro gaisook beti neke
Auzook bere igui daude / beti dabilena eske
- 39: Txitak / grisolak ta urdaya / Maiatzeko maira.
- 43: Maiatz iluna ta bagil argia / urte guztiko ogia
- 48: Farata asko kalean / audiaka ebiltan dira ta ogiari leioe jira

5.3.2. *Kontrasteak*

- 17: Buruko andia / ta jate urria
- 36: Zeeikek maurtuti oanean / eder eztanik kalean
- 37: Kaden txarriak / aretx ohea irunsi
- 41: Nekearen ostean poza
- 42: Mutil onak buruan zauri / gaiztoak bernazakian

5.3.3. *Mailaketak: batez ere aditz jokoak aipatzen ditugu*

- 10: Aspertu banekio / asper lekiket
- 31: Az adinon / ta aza on
- 40: Naiago dot to bat / ze amabi emon deiat
- 49: Trankart egiten deustak / ta ulerretan deuskat

5.4. *Tropoak*

5.4.1. *Konparaketak: konparaketak egiteko klitxe ohituenak*

- 2: Aberats izatea baño / ospe ona obeago
- 7: Biotza ta zentzuna guduan dira bearrago / iskilluak baño

- 8: Beien erroa jatxiago, luzeago
- 20: Zelan baista oiala / alakoa mendela
- 22: Zaarrago / ikasgurago
- 29: Aldi txaburra lasterra bada / egun astia baño obe da
- 30: Adinona / larra baño obe da
- 35: Zelangoa baista amea / alangoa oi da alabea

5.4.2. *Ironia*

- 50: Tilista aroan amabost urte det

5.4.3. *Galderak*

- 21: Zitel zirola / nok gudura aroa

Lagin hau osoagoa izan zitekeen, adibide aukeratuagoak eskaintzeko erosotasunez, baina txosten honen egitekoa mugatua zen: literatur alderdia azpimarratzea, azterbideak aurkeztea, dei bat egitea, gaiaren jakingarritasunaz eta ederraz ohartarazteko. Ekarki eskematiko bat euskal paremiologiaren ezagutzarako. Eta hau da egin duguna.

6. **Azkena**

Aristoteli hitza hartuz, Oihenartek aipatzen digu, esaera zaharrak hondamendi batetik geratu ziren pusketak zirela, hautsi-abartza baten hondakinak.

Esplikazio leiendistiko honek, antzeko espresioek bezalaxe, egiazko gihar bat badute, beste eraikuntza literarioen pareta zahar dira, edo hobeto esan, bitxi bereizi eta baliotsuak, hala nola aztarnategietan agertzen diren zutabeak, artxi-boltak, brinbalak, leihoteriak nahi duzuen eratako pusketa biziak. Berez, literaturzale batentzat, atsotitzak ipuin baten erremate izan daitezke, bertso baten epifonema, liburu sapientzial baten pusketa eta abar.

Esaera zaharrei dagokienez, esan daiteke, iluntasunak badituztela, agian formula ez zehatzak ere bai; testu idekiak ere badirela, lehendik datozen gauzak, baina zuzeneko erabilerak —argiaren eta bizitasunaren amorez— uki daitezkeenak, osagarri eta erabilgarri.

Atsotitzen testiguak eta lekukoak, ez du zertan estilista izan eta zentzu garatua eduki formulak osatzean eta erabiltzean. Horregatik aldaerak, zalantzak, “okerrak”, herriaren ahotan. Eta erabilera jantziagoa ere bai lekuko hoberenen artean.

Uste dut arlo hau ere kontuan hartzekoa dela, mintzoa literatura ere badenez, batez ere gaurkoa betikoarekin lotu nahi denean. Eta atsotitzek ezinbesteko garrantzia dute mintzoari aforismo eitea eman nahi zaionean, eite sapientzial eta gnomiko bat.

ESAERA ZAHARREN AZTERKETA SOZIOLOGIAREN IKUSPEGITIK (1)

Durango 1996.eko abenduaren 7a

Patxi Juaristi

Zalantzarik ez dago esaerak ikuspuntu ezberdinetatik aztertu daitezkeela: ikuspuntu linguistikotik, historikotik, etnografikotik e.a. Idazki honetan, esaerak era honetako azterketak egiteko ezezik azterketa soziologikorako material garrantzitsua ere badirela aldarrikatu nahi nuke. Izan ere, esaerak hizkuntzaren bihotzean bizi eta herriak erabiltzen dituen adierazpideak diren heinean (2), hizkuntza bera bezala, herri baten bizipen eta pentsamoldeen lekuko eta igorle dira (3) eta, honenbestez, herri baten gizarte burubideak ikertzeko material soziologiko ezinhobeak.

(1) Eskerrak eman nahi nizkieke lan hau erraztu dutenei. Eta lehenengo eta behin, Justo Mokoroa bera aipatu nahi nuke; izan ere, berak bildutako esaeratan oinarritu bainaiz ikerketa egiteko. Mokoroarekin batera, esaera bilduma informatizatzen eta BRS programaren bitartez ikertzen lagundu didaten Euroisa empresa eta bertako langileei ere nire esker ona adierazi nahi diet. Azkenik, Paco Garmendia eskertu nahi nuke; ikerketa hau ezer gutxi izango bailitzake egin dizkidan zuzenketengatik ez balitz.

(2) Lekuonak dioen bezala: “Modismo auek izkuntzaren biotzean bizi oi dira, beste antzeko zenbait formula bezalatsu: atsotitz, esakun, zuur-itx eta abar. Eta horregatik erri mailako espresio-bide bezala jotzen dira: erriak bere eginak ditu, izketan ari denean itzetik-ortzera erabiltzen di-tuela”. LEKUONA, J.M.: *Ahozko Euskal Literatura*. Erein, Donostia, 1984, 249. orr.

— Koldo Izagirrek maila berean hitz egiten du bere esaera bilduman: “Herri hizkeraren ezau-garririk nabarmentakoa da lokuzioa, eta aho hizkeraren sorketa estilistikorik garrantzitsua (errefrauren erretorika eta moralkeria gabe). Hizkuntzak ito eginen lirateke bortxaren bortxaz ederragotzen dituen herri anonimoak erabiliko ez balitu”. IZAGIRRE, K.: *Diccionario de locuciones del euskera y correspondencias españolas, Euskal Lokuzioak, fictionarie des locutions de l'euskara et correspondances françaises*. Hordago, Donostia, 1984, VII. orr.

Beste pasarte batean ere zera aipatzen du: “Lokuzioak ‘salbatu’ egin diren hitz egiteko moduak dira, nekezago lortu ahal izan baitute inprimategiaren ohorea. Lokuzioa bizimodu estandarretik, usarioen berdintasunetik eta gizatalde baten ‘akordioz’ jaiotako mintzamodua da”. IZAGIRRE, K.: aip. lib. XII. orr.

— Ikuspuntu honi dagokionez ikus ere: LEKUONA, J.M.: “Erri literaturaz. Atsoitzak eta esaerak”, *Lekuona'tar Manuel Jaunaren Omenezko Idazki-Bilduma III*. Kardaberaz Bazkuna, 1977, 17. orr.

(3) J.M. Barandiaranek zera dio: “Un rasgo del mundo interior o de las tradiciones mentales que caracterizan la conducta de los hombres es el valor y sentido que éstos atribuyen a sus propias concepciones, a sus locuciones y a sus metáforas”. BARANDIARAN, J.M.: “Rasgos de la mentalidad popular vasca”. Aip. lib., 90. orr.

— Mokoroa berak ere ondorengo pasarte hau eskaintzen digu: “Que la lengua es el receptáculo de la experiencia de un pueblo y el sedimento de su pensar. Que en los hondos repliegues

Esaerek ikerketa soziologikorako duten garrantzi hau hatzemateko erarik errazena praktikan ikustea denez, esaeretan oinarrituz egin dudan azterketa baten berri emango dut idazki honetan. Hain zuzen ere, ia 100.000 esaerez osaturik dagoen Justo Mokoroaren *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca* (4) esaera bilduman oinarrituz egin dudan azterketa soziologikoaren aurkezpena egingo dut.

Lehenengo eta behin, argi utzi nahi nuke, ikerketa honen helburua eguneroko harremanak euskaraz burutu dituztenek, zer-nola bizi izan dituzten ondasunekiko harremanak ezagutzea izan dela. Hau da, zer-nolako gizarte burubideak bizi izan diren ohituraz Euskal Herrian ondasunekiko harremanei dagokionez jakitea (Ondasun izatea aitortzen diet gizartegintzan baliotsuak eta urriak diren objetuei. Baliotsu izate hau, beharrian bat asetzeko gai izateagatik lortzen den berezitasuna delarik) (5).

EREDU EZBERDINAK ONDASUNEKIKO HARREMANEI DAGOKIONEZ

Abiapuntua kezka hori izanik, emandako lehen pausoa ikerlari ezberdinek gai honen inguruan egin dituzten ikerketak ezagutzea izan da; honekin, nire galderari ikerlari ezberdinek eman dioten erantzuna ezagutu nahi izan dut.

Eta hara zer-nola diren gauzak! Ikerketa hauek aztertzeraz hurbiltzearekin batera, desadostasun nabarmenekin aurkitu naiz. Ohituraz Euskal Herrian bizi izan diren ondasunekiko harremanei buruzko ikuspuntu guztiz kontrajarriekin, alegia. Desadostasun eta kontraesanen gainetik, dena dela, ikerketa ezberdinak hiru eredu nagusitan banatu daitezkeela ohartu naiz:

1. Ondasunekiko harreman bereziak Euskal Herrian

Alde batetik, Euskal Herrian ondasun iraunkorrekiko harreman bereziak ezagutu direla aldarrikatzen dutenen ikuspuntua dugu. Eredu honetan kokatu ditudan ikerlariarentzat, Euskal Herrian ez da ohituraz propietate pribaturik ezagutu. Maïte Lafourcade-k dioen bezala, "Los vascos ignoraban el concepto romano del derecho de propiedad, absoluta e indivisible. En Labourd, como en las restantes provincias vascas, las tierras pertenecían desde siempre a la colectividad de los habitantes. Los terrenos no cultivados se distribuían entre las

de sus metáforas (—y lo son la mayoría de los vocablos—) ha ido dejando sus huellas el espíritu colectivo del pueblo, como en los terrenos geológicos el proceso de la fauna viva". MOKOROA, J.M.: *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca I eta II*. Etor, Donostia, 1990, 26. orr.

(4) MOKOROA, J.M.: *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca I eta II*. Aip. Lib.

(5) Ikus ADAMSON, H.E. eta WEABER, T.: *Antropología y experiencia humana*. Ediciones Omega, Barcelona, 1985, (5. argitarapena), 252. orr.

parroquias o los valles, y los laborables, entre las familias. La tierra vasca era alodial, es decir estaba considerada como propia de los antepasados y no de algún señor feudal o soberano" (6).

Era berean, propietate pribatuaren tokia Euskal Herrian ardurak bete izan duela adierazten zaigu: "No existía propiedad de la tierra y el derecho al usufructo que se recibía no era otra cosa que una confianza de la mancomunidad a los descendientes de que sabrían administrar la propiedad con la misma rectitud de carácter con que lo hiciera el padre. El mérito no se heredaba, había que conquistarlo" (7). Zentzu honetan, belaunaldi batetik bestera ez da ondasunekin nahi dena egiteko eskubidea (Ius abutendi) ematen duen ondasunekiko propietatea igortzen, hauen ardura eta erabilera baizik: "...el bien raiz no puede desgajarse del tronco sin el consentimiento de todos. Sigue transmitiéndose en su integridad al hijo que en cada generación se considere más apto para conservarlo adecuadamente y hacer que fructifique. Este será su administrador, pero no el propietario según el criterio romano. No posee más que su disfrute y administración. Es el responsable de dicho bien como lo son todos los miembros de las familias restantes" (8).

Azkenik, ondasun iraunkorrekiko eskubidea, zuzeneko lanak ematen zuela aipamarratzen digute eredu honetan kokatu ditugun ikerlariak (9). Diego An-

(6) LAFOURCADE, M.: "El Particularismo Jurídico", Haritschelhar, J. (Zuzendaria): *Ser Vasco*. Ediciones Mensajero, Bilbao, 1986, 172. orr.

(7) Pasarte hauek Frankismo garaian Andoni Irala-k Keperin de Jemein-i herbestetik idatziriko eskutizetatik hartuak daude. Argitaratu gabeko eskutitz interesgarri hauetan, euskal araubide bereziaren zehaztasun ugari ematen da. Guk, ondasunekiko harremani buruzko xehetasunak hartu ditugu.

Aipatzekoa da, bestalde, ondasunekiko harremani buruzko ideia hauen muina argitaratu gabeko eskutitz hauetan aurkitzen bada ere, geroztik argitaratu duen liburu batean ere ikuspuntu honi buruzko zehaztasunik adierazten duela. Honela, bere *Bat bitan banatzen da II, Mao Tse-tung-en azkon zorrotza* liburuaren hitzaurrean, Andoni Irala-k honako hau adierazten digu: "Zorioneko «propiedad» itzarekin gertatzen zaiguna bera. Errigintzaren euskerazko erabidean ez da ondasunen eskurakoa edo-ta ondasunekiko eskubidea «derecho de propiedad/droit de propriété» delakoaren arira tankeratu izan. Gaiñera, «deretxo» delako ortan ikasiak diranak ez datoz bat bere zera zertan datzan zeazterakoan. Argatik ez dugu itz orren ordezkorik euskeraz ematen. Bego, beraz, bere ortan batere ikuturik gabe, «erreboluzioa» bezalaxe, bere mamia gure euskal-izanbidearen ondatzaille danez gero. Ortaz konturatu ez danak ezer gutxi lekarkioko gure errigintzari. Eta «propiedad» «jabetza»rekin berdintzen duten oiek jakin bezate, JABETZA edo JAUBETZA dala inan zuzen «derecho de propiedad/droit de propriété» delakoaren ezeztapenik errokoena". IRALA, A.: *Bat bitan banatzen da II. Mao Tse-tung-en azkon zorrotza*. Etor, Donosti, 1976, 9. orr.

(8) LAFOURCADE, M.: "El Particularismo Jurídico", aip. lib., 176. orr.

(9) Aipatzekoa da idazki labur honetan ezinezkoa dela eredu honetan kokatzen ditudan ikerlari guztien aurkezpena egitea. Dena dela, honako hauek kontutan edukitzea garrantzitsua dela iruditzen zait:

— CELAYA, A.: "El sentido jurídico de nuestro pueblo", *1 Semana de Antropología Vasca*. Editorial de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1971.

— CELAYA, A.: "El derecho foral vasco desde la perspectiva del derecho civil", *Euskal Herria, Errealitatea eta egitismo. Realidad y proyecto*. (Joseba Intxausti zuzendaria) Lankide Au-

gulo Lagunak zioenez: “Paréceme, por último, que esta particular manera de manifestarse las relaciones jurídicas entre inquilinos y dueños arranca del modo especial de sentir el Derecho que, por efecto de su singular complejión, tiene la gente vizcaína. Creo descubrir en todo lo que llevo expuesto, en la conciencia jurídica de esta raza, algo así como la intuición del principio profundamente social de que el trabajo es por excelencia el principal factor del mantenimiento efectivo del derecho de propiedad y el más sagrado de los motivos que hacen á ese derecho digno del respeto y de la consideración del Estado” (10).

Ondasunekiko harremanen arauketa berezi honen aurrean, Euskal Herriaren eta Zuzenbide Erromatarren eragina jasan duten inguruko herrialdeen arteko ezberdintasuna argia dela ondorioztatuko da (11). Gainera, Eskaldunek eginalak egin ohi dituztela zuzenbide erromatarren eraginarengandik euskal gizarte arau guzti hauek defendatzeko esaten da (12).

rezkia, Jakin, 1985.

— CELAYA, A.: “Propiedad Troncal y Patrimonio Familiar: La Troncalidad en Bizkaia”, *Euskal Erakunde Zibilei Buruzko Nazioarteko Ihardunaldiak*. Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia, Deustuko Unibertsitatea, 1991.

— CELAYA, A.: *Derecho Civil Vasco*. Universidad de Deusto, Bilbao, 1993.

— GARMENDIA, F.: “Euskal Erakundeak. Sarrera”, *Euskaldunak, Euskal Etnia, III*. Etor, Donosti, 1978.

— GARMENDIA, F.: “Gure Mendiak eta Euskal Gizartearen Eraketa”, *Mendiak I. Berezko eta giza-giroturiko Eusko Lurra*. Etor, Donosti, 1981.

— GARMENDIAK, F.: “Egingo Ote Euskalerrria Geroaren Jabe?”, *Donostiako Udako IV. Ikastaroak. Euskal-Herria Presente y Futuro* (Enrique Freijo Balsebre Zuzendaria). EHU-ko Argitarapen Zerbitzua, 1985.

— IHARTZATAR HEIKO SAGREDO: “Euskal Gizarte-Asmo Batentzako Oinharri Ideia Batzu”, *Zehatz I*, Donosti, 1977. eko Urtarrila/Otsaila.

— SARRAILH DE IHARTZA, F.: *La Nueva Vasconia*. Ediciones Vascas Argitaletxea, Oiarzun, 1979.

(10) ANGULO LAGUNA, D.: *Derecho Privado de Vizcaya*. Hijos de Reus, Madrid, 1903, 39. orr.

(11) LAFOURCADE, M.: aip. lib., 165. orr.: “En tanto los países de Occidente se vieron profundamente influenciados por la civilización del Bajo Imperio romano, por su concepción de la soberanía del Estado, de un poder supremo, absoluto, indivisible e independiente, de estructuras jerarquizadas, centralizadas y uniformes, de individuos protegidos, es cierto, pero aislados, amparados y sometidos al influjo del Poder, de la familia sometida a la autoridad del *pater familias*, de la superioridad del hombre sobre la mujer —calificada como *imbecilitas sexus*— de la propiedad individualista y absoluta... los vascos conservaron su sistema jurídico secular, hondamente comunitario, igualitario y democrático”.

(12) “...beti ere gure arbasoek, zuzenbide erromatarren eragina euskal pentsamenduan ekitzea izan zuten helburu. Herri-Batzarrak elizpeetan egiten baziren ere, elcizgizonek herri-batzarretan zein Batzar Nagusietan sartzeta debekatuta zuten, Gipuzkoan eta Bizkaian behintzat. Berdin gertatzen zen legegizonekin ere.

Debeku hauen arrazoia, apaiz eta legegizonek Zuzenbide erromatarraz kutsatuak zeudelako da, hau da, erromatar legediaz baliatzen ziralako. Eta euskaldunen ‘Batzarretan’ berriz, ohiturazko legeen arabera zuzentzen ziren”. LEKUONA, M.: “Eusko Institutizunak”, *Euskaldunak. La Etnia Vasca I*. Etor, Donosti, 1978, 44. orr.

2. Propietate pribatua eta herri lurra euskaldunen ondasunekiko harremanetan

Bigarrenik, euskaldunek ondasun iraunkorrekiko harreman bereziak izan dituztela dioten arren, harreman hauek propietate pribatuarekin batera bizi izan direla azpimarratzen dutenen eredia berezi dezakegu. Honela, beraz, etxea eta lurgintzarako erabiltzen ziren soro eta baratza, propietate pribatuzkoak eta baso eta belardiak herri-lur bezala aurkeztuak dira. Florencio Idoatek Erronkariri buruz dioen bezala: "...en Roncal como en otras comunidades o valles, hay varios grados en cuanto a la propiedad del suelo, desde la común o colectiva, que cuaja en aquella fórmula general de 'todo para todos', hasta la particular o privada, siempre con algunas restricciones, si se aquilatan bien las cosas" (13).

Propietate pribatuaren sorrerari buruz ikuspuntu eta interpretazio ezberdinak badaude ere (14), batez ere informazio gutxi dagoelako (15), ikerlari hauek argi dute propietate pribatua antzinakoa (16) eta zalantza gabekoa dela. Beraien ustez, Erdi Aro Garaitik ezagutzen diren monastegiei egindako donazioak eta

(13) IDOATE, F.: *La Comunidad del Valle del Roncal*. Diputación foral de Navarra, Pamplona, 1977, 113. orr.

(14) Alfredo Floristan Samanes-ek Tuterako Erriberari buruz hitz egiterakoan zera dio: "Desde los primeros testimonios históricos se nos presentan, pues los campos o huertas en la etapa de la propiedad privada...¿Por qué etapas se llegó, si admitimos que siempre no fué así, a este dominio y aprovechamiento individuales?...a) Libre apropiación del suelo; b) redistribución periódica o usufructo en vida; y c) propiedad y aprovechamiento individual. En muchos municipios del Ebro y Aragón se conoce con el nombre de sotos a la parte del campo o huerta más cercana a los que en el s. XIX o XX se repartieron entre los vecinos mediante sorteo o se vendieron. ¿Quiere decir esto que en tiempos más o menos lejanos también fueron esas tierras propiedad comunal? No hemos topado con documentación que nos lo acredite. En algunos pueblos —Cortes, Arguedas— se conserva la tradición de que así fué en efecto. Por otra parte, el examen de los planos parcelarios del Catastro nos pone de manifiesto la igualdad en la forma y extensión de las parcelas de dichos sotos. ¿Cabe, pues, concluir que se pasó del mero usufructo de las suertes a su propiedad íntegra? Así nos lo parece". FLORISTAN SAMANES, A.: *La Rivera Tudelana de Navarra*. Diputación Foral de Navarra Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Institución "Príncipe de Viana" Instituto "Juan Sebastián Elcano", Zaragoza, 1951, 86. orr.

(15) "Las tierras amojonadas eran de libre disposición para su propietario, por esta razón son escasas las referencias a estas tierras de las ordenanzas. Por el contrario, está regulado con precisión el sistema de aprovechamiento de la tierra común". ARIZCUN CELA, A.: *Economía y sociedad en un valle pirenaico del Antiguo Régimen Baztan 1600-1841*. Gobierno de Navarra-Departamento de Educación y Cultura, Institución Príncipe de Viana, 1988, 52. orr.

(16) "El hecho material de la roturación y siembra, acompañado del elemento constitutivo de inscripción en el Libro de Abolengo, suponía entrar en posesión de los bienes. Sin embargo, el transcurso del tiempo y las sucesivas inscripciones registrales en la mayor parte de los casos, han determinado un proceso de transformación de la posesión en dominio a través de la prescripción adquisitiva, lo que nunca ha sido obstaculizado por el Valle, quien desde los momentos históricos más remotos ha reconocido la existencia de propiedad privada, concepto que se ha ido ampliando, no sólo a las casas y huertos, sino también a las fincas roturadas y cultivadas dentro de los comunes". ALLI ARANGUREN, J.C.: *La Comunidad Del Valle De Roncal*. Gobierno de Navarra, Departamento de Presidencia e Interior, Pamplona, 1989, 221. orr.

testamentuen bitartez egindako ondasun iraunkorren eskuz aldatzeak, horren froga zalantza ezinak dira (17). Dena dela, eta donazioak inolako oztoporik gabe egin zitezkeela esaten bada ere, Florencio Idoate-ren pasarte hau kontutan hartzekoa da: “Sin embargo, hay que mantener ciertas reservas, dado que la norma y costumbre que vemos posteriormente en cuanto a la tierra, es que dentro de los términos de las villas, cualquiera podía rozar o roturar libremente, y transmitir los campos o predios a sus descendientes, después de inscribirlos en los llamados libros de Abolengo, que existen todavía” (18).

Gainera, donazio edo testamentuen bitartez egindako eskuz aldatzeak herriarren artean egitera behartuta zeudela adierazten da (19). Zentzu honetan, propietate pribatua aintzinakoa dela baieztatzen duten frogak azpimarratzen bada ere, frogak ezeztatzen duten informazio ukaezina onartzen da (20).

3. Propietate pribatuaren nagusigoa ondasunekiko harremanak arautzerakoan

Azkenik, inguruan izan dituen beste herrietan bezala, Euskal Herrian ere, nagusiki, morrontzan eta propietate pribatuan oinarritutako ondasunekiko gizarte harremanak ezagutu direla defendatzen dutenen erueda dugu. Fernando Garcia de Cortazarrek dioen legez: “Aunque pueda resultar simplificador ha-

(17) Florencio Idoatek adibidez, monastegiei egindako donazioak jartzen ditu propietate pribatuaren frogak bezala. Bere ustez, jauntxo, militar eta “melioren homes” delakoek donazioak inolako oztopo edo mugarik gabe egiteak, propietate pribatuaren frogak argi eta garbiak dira. Honela dio, Bidangotzeko palazio baten donazioaren inguruan: “El mismo Becerro contiene otra donación, consistente en un palacio con su raíz en Vidángoz, también sin fecha, pero del XI, desde luego, por todos los síntomas. Parece tratarse en ambos casos, de donaciones de bienes raíces, sin limitación alguna visible para transmitir la propiedad... Queda pues claro, al parecer, que los bienes «erribles» podían ser objeto de transmisión por donación, testamento u otro medio. Las donaciones a monasterios en estos valles pirenaicos corroboran lo que decimos”. IDOATE, F.: aip. lib. 114. orr.

(18) IDOATE, F.: aip. lib., 114. orr.

(19) ALLI, J.C.: aip. lib., 248. orr.: “Se limita la transmisión por donación o testamento: «... que si algún vecino del dicho valle... hiciere por via de donación o testamento dejar vecindad, como casas y heredadas, haz alguno que sea vecino fuera del dicho valle...»”.

(20) F. Idoate-k, propietate pribatua ezeztatzen duen pasarte hau eskaintzen duela ezin da ahantzi: “En el caso presente se utilizaron las mismas contra las pretensiones de un vecino de Uscarrés, que alegaba poseer una propiedad particular en el término de Pampillone, de Burgui. Esto parecía atentatorio contra la comunidad, obligada siempre a defender la integridad de su territorio. Sentado que cualquier roncalés podía rozar o labrar libremente en los términos de valle, asegura el procurador que «siempre y quando que se cese el dicho cultivo por tiempo de uno o dos años, puede cualquier otro vecino de dicho valle introducirse libremente en los tales terrenos a labrarlos y sembrarlos, sin estorbo ni embarazo de aquel o aquellos que los dejaron. y de esta suerte se ha vivido y gobernado en dicho valle». Por supuesto, nunca se había permitido la venta de terreno del común a forasteros, fuese o no para cultivo, porque entre otras razones, aumentarían excesivamente las roturas y sembrados, con perjuicio de las hierbas y aguas”. IDOATE, F.: aip. lib., 118. orr.

blar de la condición o situación general del campesino medieval vasco, no cabe duda de que ésta se aproximaba o identificaba a lo que en el feudalismo europeo se llamaba siervos de la gleba. Con esta denominación se quería indicar la condición de la servidumbre por la que se desenvolvían las relaciones entre el dueño de la tierra y el trabajador de la época. Su característica fundamental residía en el usufructo de un terreno, de cuya propiedad eminente era titular un señor, a cambio de la cual se satisfacía una renta” (21).

Hirugarren ikuspuntu honetan kokatzen ditudan ikerlariak honenbestez, ondasun iraukorrekiko harreman bereziak bizi izan direnarekiko guztiz aurkako jarrera agertaraziz, Euskal Herrian ohituraz, harreman feudalak eta giza mailak egon direla eta hau, ondasunekiko eskubide eta erabilera ezberdinean isladatu dela azpimarratzen dute (22). Zentzu honetan, argi adierazten dute Euskal Herrian ondasunekiko harreman bereziak egon direnari buruzko ideiak mito hutsak direla: “Que en el campo vasco predominaba tradicionalmente la pequeña propiedad es uno de tantos mitos con que durante mucho tiempo se ha escrito la historia del País Vasco. Conforme a esta concepción, la pequeña propiedad sería la base económica de una estructura social que convertiría al País en una comunidad sin graves diferencias, en la que la concordia y la colaboración eran los elementos en los que se fundamentaban las relaciones sociales” (23).

Ikerketa eta autore ezberdinak hiru eredu hauetan banatzea sinplifikazio bat izan daitekela onartuta ere, sailkapen honek gauza bat argi eta garbi adierazten digu: euskaldunek ondasunekiko izan ohi dituzten harremanak azaltze-

(21) GARCIA DE CORTAZAR, F. eta LORENZO ESPINOSA, J.M.: *Historia del País Vasco*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1988, 57 orr.

(22) Ikuspuntu honen baitan ikerlari eta liburu hauek kontutan edukitzea nahitaezkoa da:

— ARANZADI, J.: *Milenarismo Vasco. Edad de oro, etnia y nativismo*. Taurus, Madrid, 1982.

— FERNANDEZ DE PINEDO, E.: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100/1850*. Siglo Veintiuno editores, Madrid, 1974.

— GARCIA DE CORTAZAR, J.A.: *Vizcaya en la alta edad media*. Caja de Ahorros Vizcaína, Colección “temas vizcaínos”/ IX. urtea/105. zenbakia.

— GARCIA DE CORTAZAR, J.A.: *Vizcaya en el Siglo-XV, Aspectos Económicos y Sociales*. Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 1966.

— GARCIA DE CORTAZAR, J.A.: ARIZAGA B., MARTINEZ OCHOA R. M. eta RIOS M. L.: *Introducción a la Historia Medieval de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya en sus textos*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1979.

— GARCIA DE CORTAZAR, J.A.: “Medievo y mundo urbano”, *Los Vascos a través de la Historia, Comportamientos, mentalidades y vida cotidiana*. Gipuzkoako Kutzaren Argitarapenak, Jose Luis Orella (Zuzendari eta Koordinatzailea), Donosti 1989.

— GARCIA DE CORTAZAR, J.A. eta ARIZAGA, B.: *Euskal Herria Erdi Aroan I eta II*. Gaiak, Donostia, 1991.

— OTAZU Y LLANA DE, A.: *El igualitarismo Vasco: Mito o Realidad*. Editorial Txertoa, Donosti, 1986, (Bigarren Argitaldaria).

(23) GARCIA DE CORTAZAR, F. eta MONTERO, M.: *Diccionario de Historia del País Vasco A-H*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1983, 55. orr.

rakoan, dezadostasun nabarmenak agertzen direla; ikuspuntu kontrajarri eta batera ezinekin aurkitzen garela, alegia. Eta egoera honetan, ez dago zalantzarik, zaila dela Euskal Herrian ohituraz bizi izan diren ondasunekiko harremanen berezitasunak behar bezala ezagutu eta aurrera pausorik ematea.

ESAERAK IKERKETARAKO MATERIAL BEZALA

Honela beraz, bizi izandako ondasunekiko gizarte harremanen ezagutza zehatzagoa izan asmoz, beste bide batzuk jorratzen hastea beharrezkoa dela iruditu zait, oinarri sendoagoa eskainiko didaten bideak, alegia.

Bide berri hoiek bilatzerakoan, aurkeztu ditudan hiru eredu ezberdin haue-tan behar hainbat aintzakotzat hartu izan ez den iturri batetara jo dut; ahozko literaturara, hain zuzen ere. Ez dugu ahaztu behar, ahozko literatura guztia, hau da, esaerak, ipuinak, kantuak, bertsoak... gizarte baten iraganaren lekuko direla. Eta hauek, eskuragarriak eta aztergai dira. J.M. Barandiaran-ek dioen bezala: "El pueblo vasco, especialmente aquella parte cuyo espíritu ha influido apenas la literatura escrita, conserva todavía preciosos recuerdos de su antigua cultura, cuyo vehículo, a través del tiempo, es la tradición oral. A ésta, por lo tanto, conviene acudir en demanda de material de estudio" (24).

Ahozko euskal literatura hain aberatsa izanik (25), genero eta azpigenero ezberdinak hartu nezazkeen azterketa egiteko. Ikerketak dituen helburuetarako guztien azterketa egitea gehiegizkoa litzatekeela onartuz, esaeretan oinarritzea erabaki dut, izan ere, esaerak era erraz batean eskuratu eta neurtu baitaitezke.

Dena dela, ez naiz aho hizkeran Euskal Herrian bizi eta erabiltzen diren esaeren biltze lanetan hasi. Egin nezakeen lana bada ere, nahiago izan dut aurretiaz bilduta dauden eta, zentzu honetan, aztergai diren esaeretan oinarritu.

Honela bada, esaera bilduma ezberdinak aztertu ondoren (Ez dira asko euskal esaera bildumak. Hoiien artean, 2.011 esaera eskaintzen dituen Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza III* bilduma (26), L. Villasante-ren *Axular-en hiztegia* (27), 1.330 esaera baino gehiago dituen Joseba Gereñoren (28) bilduma,

(24) BARANDIARAN, J.M.: "Folklore Vasco. Necesidad de su estudio", *Obras Completas de Barandiaran*, V. Tomoa, Editorial de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1974, 309. orr.

(25) Ikus LEKUONA, J.M.: "Literatura Oral Vasca", *Cultura Vasca II*. Erein, Donosti, 1978, 65.orr edo Euskaltzaindia: "Ahozko Euskal Literatura", *Euskararen Liburu Zuria*. Euskaltzaindia, Elkar, Bilbao, 1978, 167. orr.

(26) AZKUE, R.M.: *Euskalerrriaren Yakintza, Literatura Popular Del País Vasco III. Proverbios, Modismos, Lenguaje Infantil, Trabalenguas, Sobrenombres, Acertijos*. Euskaltzaindia & Espasa Calpe, Madrid, 1989 (hirugarren argitarapena).

(27) VILLASANTE, L.: *Axular-en Hiztegia*, Oinati, 1973.

(28) GEREÑO, J., *Diccionario de Modismos, Esaeren Hiztegia*, Joseba Gereño argitaratzaile, Bilbo 1980.

Aek-k argitaratutako bilduma (29) eta oraindik aberatsagoa den Koldo Izagiren (30) esaera hiztegia aipatu ditzakegu (31), ikusgune soziologikotik oraindik ikertu gabe dagoen Justo Mokoroaren *REPERTORIO DE LOCUCIONES DEL HABLA POPULAR VASCA* lokuzioen bilduma aukeratu dut ondasunekiko harremanci buruzko gizarte burubideen azterketarako data-*corpus* bezala. Bilduma honetan oinarritzearen arrazoiak hiru izan dira, batez ere:

1. Alde batetik, Justo Mokoroak bere bilduman aurkezten dituen esaerak herriaren ahotik zein euskal idazle jatorren idatzietatik hartuak daudelako aukeratu dut. Euskal kutsuko esaeren aurrean, hau da, euskal gizarte burubideen lekuko diren lokuzioen aurrean gaudela pentsa genezake beraz; eta, honenbestez, nire ikerketarako *corpus* ezin hobe baten aurrean. Mokoroak berak dioen bezala: “De estas expresiones, muchas las he recogido yo mismo directamente del habla viva: son las que, entre las «Fuentes» marco con el indicativo 10. Algunas las debo a amigos colaboradores cuyos nombres cito entre los «Testigos». La mayor parte provienen de escritos de indudable vena popular, impresos o inéditos” (32).

2. Bigarrenik, bilduma honek eskaintzen dizkigun esaera kopuruagatik aukeratu dudala azpimarratu nahi nuke. Hain zuzen ere, 92.167 esaerez osaturik, *corpus* paregabea bihurtzen da honelako azterketa bat egiteko (33).

3. Azkenik esan, esaera bakoitzari buruz informazio zehatza ematen duelako aukeratu dudala. Izan ere, informazio honek esaerak aztertu, sailkatu eta alderatzeko laguntza ezinhobea eskaintzen baitu (34). Hau da, esaera bakoitzean aurkezten zaigun informazioa, esaeren azterketan ager daitezkeen zailtasunak gainditu eta gonbaraketak egiteko balio izugarria eskaintzen duelako.

(29) AEK: *Euskalduntzerako Helburuak. Esakuneak*. Artes Gráficas Rontegui, Bilbo, 1990.

(30) IZAGIRRE, K.: aip. lib.

(31) Kontutan izan behar dira ere, Azkue-k bere *Euskalerrriaren Yakintza III* liburuan aipatzen dituenak: “Iru dira dazauzkigun esakeralariak: Altube, Intza eta Ormaetxea. Irueroi beron laritasun au Euskaltzaindian erne zaie; eta bere aldiroko Euskeraren orrietan argitaratu dituzte erriari ikasitako esakera guziak. Azalgarrienak, bear dan baimenez, liburu onetan biryaioko dira”. AZKUE, R.M.: aip. lib., 234. orr.

(32) MOKOROA, J.: aip. lib. 22. orr.

(33) Kontutan izan behar da, nahiz eta esaerataz hitz egin, zenbait atsotitz ere tartekatuta daudela bilduman zehar. Azterketa egiteko ez ditut alde batera utzi. Ikerketa, bilduma bere osotasunean hartuta egin dela ez da ahantzi behar.

(34) Esaera bakoitza honela aurkeztua baitator bilduman:

1. Lehenengo, esaera bakoitzaren zenbakia agertzen da. Ondoren, esaera agertzen den partea esaera beltzean duelarik, eta azkenik, lokuzioaren azalpena gaztelaniaz.

2. Honekin batera, esaeraren euskalkia, lekukoa eta esaera hartu den iturriaren (liburua, aldizkaria edo egunkaria) orrialdeari buruzko informazioa ematen da.

ESAEREN AZTERKETAN ERABILITAKO METODOA ETA EMANDAKO PAUSOAK

Azterketa hau, gizarte zientzietan aski finkatua eta ezaguna den **eduki azterketaren** bidez burutu dut (35). Hain zuzen ere, *corpus*aren berezitasunak kontutan hartuz, ordenagailuaren eta, zehazki, BRS programa informatikoaren laguntzaz baliatu naiz azterketa egiteko. Programa informatiko honek, testuen azterketa egiteko estrategia ezberdinak eskaintzeaz gain, honelako *corpus* zabalaren arintasunez aztertzeko gaitasuna du. Izan ere, liburutegietan aurkitetako egiteko erabiltzen den programa informatikoan oinarrituta egonik, BRS-aren berezitasunak nabarmenena, *corpus* handietan azterketak azkar egiteko gaitasuna da. 92.167 esaera dituen Justo Mokoroaren esaera bilduma mardula aztertzeko aproposa beraz.

Eduki azterketa ordenagailuaren laguntzaz egiteak, bilduma sistema informatikoan erabiltzeko eta BRS programaz joratzeko eran prestatzea eskatu du, lan itzela eman didana baina baita etekin ezin hobea eskaini ere. Behin lan hori egin ondoren, hiru pausotan burutu dut azterketa:

I-go TAULA

GIZARTEGINTZAN NOR AIPATUENAK

1. GU	5.793
2. ETXE (Baserri, Basarri, Etse, Etxalde)	3.727
3. GIZON (Senar, Senhar)	3.204
4. NI	3.024
5. ZU	2.874
6. HERRI (Erri, Uri, Huri)	1.997
7. ANDRE (Andere, Etxekoandre, Dama, Ugazabandre, Emakume, Emazte)	1.852
8. UME	1.778
9. MUTIL (Mutiko, Muthil, Motel)	1.660
10. SEME	1.178
11. AITA	1.125
12. AMA (Amorde, Amaizun)	1.009
13. NESKA	919
14. ALABA	507

— Lehenengo eta behin, *corpus* honetan adierazten zaigun gizartegintzan nor izatea aitortzen zaienak, hau da, sujetoak zeintzuk diren argitu dut. Hau

(35) "Content analysis is a research method that uses a set of procedures to make valid inferences from text". WEBER, R.P.: *Basic Content Analysis*. Sage University Paper 46, 2nd Edition, 1990, 9. orr.

da, esaera guzti hauetan barrena beren gain nolabaiteko erantzunkizuna har dezaketenak bereizi eta, ondoren, maiztasun haundiena dutenak aukeratu ditut ikerketarako.

Ondoren aukezten den taulan ikus daitekeen bezala, **Gu, etxe, gizon, ni, zu, herri, andre, aita, ama, ume, seme, mutil, neska** eta **alaba** dira, hain zuzen ere, *corpus* honetan agerpen garrantzitsuena duten gizartekideak.

— Bigarrenik, gizartegintzan ondasun bezala agertzen zaizkigunak zeintzuk diren zehaztu dut ikerketarako maiztasunik handiena dutenak aukeratzuz (36). **Etxe, lur, mendi, soro, baso, ardi, behi, katu, txakur, asto, gari, arto, ardo** eta **ogi** dira, hain zuzen ere, ondasun aipatuena.

II. TAULA

ONDASUN AIPATUENAK *CORPUS*-EAN

1. ETXE (Baserri, basarri, baxerri, Etxe, Etxalde)	3.727
2. LUR (Baztar)	1.635
3. MENDI	833
4. SORO (Baratz, Ortu, Hortu)	223
5. BASO (Oihan)	316
6. ARDI	346
7. BEHI (Esne-behi, Abelgorri, Buztarri-behi)	463
8. KATU	268
9. TXAKUR (Zakur, Xakhur, Xakur)	539
10. ASTO	443
11. GARI	306
12. ARTO (Artho, Arthu)	292
13. ARDO (Arno, Ardu, Arda)	483
14. OGI	499

— Azkenik, sujetu eta ondasun hauek elkarrekiko zer-nolako harremanetan azaltzen zaizkigun aztertu dut.

Harreman hauen azterketa hiru pausotan burutu dut:

I. Ikerketa burutzeko aukeratu diren hamalau gizartekide eta ondasunen arteko harremanak aztertuz hasi naiz. Horretarako, aukeraturako gizartekide eta ondasunak harremanetan agertzen diren esaerak bereiztu eta harreman hauen berezitasun orokorrak aztertu ditut.

(36) Lehen esan bezala, ondasun izatea aitortzen diet gizartegintzan baliotsuak eta urriak diren objektuei. Baliotsu izate hau, beharizan bat asetzeko gai izateagatik lortzen den berezitasuna delarik.

II. Ondoren, ondasunekiko harremana adierazteko erabiltzen diren JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuak ondasunekiko harremanetan nola agertzen zaizkigun ikertu dut.

III. Azkenik, eta ondasunekiko harremanen azterketa egiteko ikuspegi ezberdinak erabili nahirik, *ondasun ezberdinek salerosketa harremanetan zer-nolako agerpena duten* ezagutu dut.

ONDASUNEKIKO HARREMANAK JUSTO MOKOROAREN *REPERTORIO DE LOCUCIONES DEL HABLA POPULAR VASCA* ESAERA BILDUMAN

Hiru pauso hauek eman ondoren, esaera bilduma honetan hiru zutabetan oinarritzen den ondasunekiko gizarte harremanak adierazten zaigula ondorioztatatu beharrean aurkitzen naiz:

- I. ONDASUNAK, ELKARTEKOAK DIRA: ETXEKO EDO-ETA HERRIKO ONDASUNAK DIRA.
- II. PROPIETATE PRIBATUA AHULA DA.
- III. ARDURA NAGUSITZEN DA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.

Ondasunekiko harremanak arautu eta bizitzerakoan hiru baieztapen hauetan laburbiltzen den gizarte errealitatea era honetan agertzen zaigu:

- I. ONDASUNAK, ELKARTEKOAK DIRA: ETXEKO EDO-ETA HERRIKO ONDASUNAK DIRA

Corpus honetako gizarte bizitzan, ondasunak *ETXEKO* eta *ETXERAKO* bezala agertzen zaizkigu nagusiki. Hau da, etxearen parte direla eta bere zerbitzura daudela adierazten zaigu esaera hauetan irakur daitekeen bezala:

31577 eta 64301. “Ai geure etxaldeko baso ta mendi zabartsuak! Emendik urtenda or Burgos-aldera noz-edo-bein joan nazanetan ango biloiztasunak ez-takit zelako naieza emon oi deustan...”. *Diccionario V.E.F.* Bigarren alea. (R.M. Azkue). 1905-1906.

61689. “Negu-buruan bildur giñan, ta aletik eman genien, etxeko ardiei...”. *Euskaldunak*. (N. Ormaetxea).

37712. “Etxeko txakurrari jaramon geiago egite eutsen, aitari baiño”. Ibaizabal Aldizkaria.

5327 eta 13101. “Etxeko garia onura obekoa dala diño, erraria (ogia) egiteko: laban erret-orduan obeto jagiten da”. *Euzkadi* egunkaria.

54711. "Hauzoko ogia baino etxeko arthoa hobea da". Ibaizabal aldizkaria.

73858. "Itxurazko beirik emen? Antxe baztarrean dagon bei urdin uraxe, izatekotan, zeoze itxura-antzekoa, zuen etxerako...". E. Zurutuza-ri hartua.

Ondasun iraunkor, etxe-abere zein elikagaiak zentzu honetan, ETXEA osatzen duten ondasun bezala agertzen dira. Ikuspuntu honetatik, aipagarria da *corpus* honetan ondasunak ez direla inoiz ETXEARENAK bezala agertzen (propietate harremana), izatekotan ere ETXEKOAK edo-eta ETXERAKOAK. Beste edonolako harremanak alboratuz, ondasunen etxearekiko lotura eta berearekiko zerbitzua azpimarratzen dela pentsa genezake.

Era berean, zenbait ondasun iraunkor HERRIKOAK dira, hau da, herritar guztiek osatzen duten elkartekoak dira esatera hauetan nabarmentzen den bezala:

4645. "Jan-edan bat eman zioten gero mediku berriari erriko-etxean...". Aitonaren Uzta. (G. Anduaga). 1961.

67272. "Erri-lurretatik alde-xamar zegoan baserria". Baserriko goraberak. (J.R. Erauskin).

79586. "Alegi asi zan lenengo erri-lurretan lan egiten; eta lurrez-lurr etekin geien berak atera du". Gure mendi ta oianak. (I. Munita). 1952.

80021. "(Indietara partitzen danak), oraiño bere herriko agerrian denean maiz behatzen du gibelat, bere herriko mendietarat...". Guero. (Axular). 2. argitarapena.

Esaera hauetan barrena, ETXE, MENDI eta LURRAK elkartekoak direla adierazten da. Hau da, gizabanako ezberdinenak izan ordez, herria da (ez oraingo herritarrek osatzen duten taldea) ondasun hoiien jabea. Ondasunen etxearekiko harremana aurkezterakoan ikusi dugun bezala, hemen ere ondasunak ez dira inoiz HERRIARENAK (propietate harremana) bezala agertzen, HERRIKOAK baizik. Hau da, ondasunen herriarekiko lotura eta zerbitzua azpimarratzen da.

Elkarteak eta, zehazki, herriak eta etxeak hartzen duten garrantzi honen arabera, ez da harriztekoa ondasunekiko harremanetan GURE eta ZUEN kontzeptuen agerpena NIRE eta ZURE kontzeptuei nagusitzea. Gutasunezko eta nitasunezko harremanen kasuan esaterako, GURE 364 aldiz (kasuen % 80,7-an) eta NIRE 87 aldiz (kasuen % 19,3-an) agertzen dira ondasunekiko harremanetan ondoren aukezten dugun taula honetan ikus daitekeen bezala (37).

(37) Zure-Zuen kontzeptuei dagokionez ere, ZUEN harremana berrogeita hamaika esateratan, hau da, kasuen % 53-tan eta ZURE harremana berrogeita lau esateratan agertzen dira (kasuen % 47).

III. TAULA

GURE-NIRE KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

	Gure	Nire
ETXE	214	61
LUR	34	—
MENDI	21	1
BASO	10	8
SORO	9	2
ARDI	10	5
BEHI	9	8
KATU	17	2
ZAKUR	19	—
ASTO	13	—
GARI	2	—
ARTO	2	—
ARDO	1	—
OGI	3	—
GUZTIRA	364	87

Gure kontzeptuak duen agerpena kontutan izanik, *corpusean* barrena era honetako esaerak nagusitzen direla ikus genezake:

1620. “Beti gexopean egon gara gure etxean...”. *Vocabulario manuscrito*. (J.I. Iztueta).

6840. “Gure baserrira beranduko ordutan etorri izandu zan askotan gizon ori, lo-lekua eskatzera”. *Alkain aita-emeak*. Auspoa Argitaletxea.

4325 eta 54135. “Gure lur murriz onek bialdu zitun mariñelak itsasoan sa-belera neke gogorrez jateko billa; maiz, eriotza arkitzera”. *Euskaldunak*. (N. Ormaetxea).

26396. “Gure mendi ta aitzak etzuten ikusi egundaño arrotzik berentzat nagusi”. *Euskal-Erria* aldizkaria 1883-II.

5555. “Zorioneko bota ta jarri-ez orrek bakandu ditu gure basoetako zugaitzak”. Dorronsoro-gandik hartua.

5616 eta 35314. “Ez; oraindik eztu zeruak lur jo... Jaunari eskerrak...; baiña gure paotx-soroa jorratu digu akerrak...”. *Zeruko Argia* astekaria.

6040. “Gure ardiak ale onik eztauke ta ezin arean loditu...”. *Diccionario V.E.F.* Lehen tomoa. (R.M. Azkue). 1905-1906.

1358. “Gure beiak gaur ongatxa dauko...”. *Diccionario V.E.F.* Bigarren alea. (R.M. Azkue). 1905-1906.

2203. "Ero-aldiak eman dio gure katuari". (Jolaserako gogoak). Mokoroak hor-hemen entzuna.

4259. "Barruan sartu eziñ-ala sartu ta gure zakurra zart-eginda geldituko zan bildur giñan". (Afarri artan). Euzkadi egunkaria.

4036. "Alderdi bat du ona gure asto onek: aitzaki-gabe jaten, ematen zaiona...". Iru ziri. (P. Urruzuno).

77678. "(Ebia egingo du, iñundik-ere...) -Egin dezala! Berdin «gure garia eztago loretan da!»". Mokoroak hor-hemen entzuna.

77751. "Gure artoak zelaitik ezetan aitzen dira: ganbaran egon-gabe... xaguen kezketan". Baserriko goraberak. (J.R. Erauskin).

81714. "Ukitua dago gure ardoa...". Diccionario V.E.F. Bigarren tomoa (R.M. Azkue) 1905-1906.

87069. "Merkeagoko zerbaitez ordaindu beharko dute han, gure ogia". Eskualduna astekaria.

Dena dela, ondasunekiko harremana zehazterakoan, GURE kontzeptuarekin ez dela beti gauza bera adierazten azpimarratu beharra dago.

GURE kontzeptua ondasun iraunkorrekiko harremanetan erabiltzen deanean, kontzeptu honen atzetik, batzutan ETXEKO GIZARTEKIDEAK eta beste batzutan HERRITARRAK daudela ikusten da. Ondasun iraunkorrak honenbestez, ETXE edo HERRI bezala gizarteratzen direnentzat dira, hau da, ETXEKO eta HERRIKO direnentzat, izan direnentzat eta izango direnentzat.

Ondasun ez iraunkorrekiko harremanetan aldiz, GURE kontzeptuaren atzetik ETXEKOAK daudela ikusten da. Ondasun hauek, etxearen zerbitzuan eta ez herriaren zerbitzuan baitaude. Etxe-abereak zein elikagaiak zentzu honetan, momentu horretan ETXEKO direnen zerbitzurako dira.

II. PROPIETATE PRIBATUA AHULA DA

Elkarteek eta, zehazki, herriak eta etxeak duten garrantzi honekin batera, propietate pribatuaren ahultasuna da *corpus* honetan adierazten den ondasunekiko harremanen beste berezitasun garrantzitsu bat. Hau da, ondasunak ETXEKO, ETXERAKO eta HERRIKO badira ere, gutxitan agertzen dira gizartekideen propietate bezala. Izan ere, gizartekideen ondasunekiko harremanetan oso gutxitan agertzen da (12 esaeratan bakarrik), beste erabilera batzuen artean ondasunekiko propietate harremana adierazten duen, -REN atzizkia (gizonaREN lurra, andreaREN etxea, mutilaREN basoa...).

Hain zuzen ere, -REN atzizkiaren bitartez, corpus osoan zehar, AITA eta 7ETXEA agertzen dira bakarrik harremanetan. Harreman hau adierazten diguten hamabi esaerak era honetan agertzen zaizkigu:

— 3471. zenbakia duen esaera, EZIN-BERTZEAN Xalbadarren liburutik hartua da: **“Egizu, Jesus, oek beren Aitaren etxera laister biurtu daitezela, gosez galdu ez ditezen”**.

— 69955, 73350, 82890, 88587, 83110 eta 84887 zenbakiekin agertzen diren esaerak Lartaun-ek Euskarazaleak aldizkarian eginiko idatzietatik hartuak dira:

69955. “Guziak utzi ta makila arturik aitaren etxerontz ipiñi nituen oin biak...”.

73350, 82890 eta 88587. “Aitaren etxean jakia nai-ezik oitua orain txerrien ortzak utzitako ezkurra ere eziñez naikoa...!”.

83110 eta 84887. “Zenbat mirabe diraden ase ta betean, nere aitaren etxean! Ta ni, ango semea otzak eta goseak ozta-ozta illean...”

— 24456 eta 82991 zenbakiak dituzten esaerak F. Lardizabal-en TESTAMENTU ZARRECO ETA BERRICO CONDAIRA-tik hartuak dira:

24456. “Irugarren semeari au bera gertatu zekiokéan-bildurrez aitaren etxera bialdu zuen.”

82991. “Zenbatek jango dute ogia naroro nere aitaren etxean ni emen goseak iltzen naukan bitartean!”.

— 72898. zenbakia duen esaera GENESIS-etik (J.A. Uriarte) hartua da: **“Kondar piskaren bat bai al degu gure aitaren etxeko ondasunetan?”**.

— 81079. esaera, URTE-GUZIKO MEZA-BEZPERAK Orixeren liburutik hartua da: **“Aitaren etxeko zillar-jainkoak tokitik kendu ta puska-puska egin zitun”**.

Aurkeztutako esaera hauez gain, ezin ahantzi 88.588 zenbakia duen esaeran AITARENEAN kontzeptua agertzen dela AITAREN ETXEAN esan ordez:

88588. “Zenbat langille nere aitarenean ogia nai-ezik! eta ni emen goseak erdi-illik!...”. Lau Ebanjelioak. (Orixe). 1967.

Hamabi alditan agertzen diren bederatzi esaera hauen esanahia eta iturriak kontutan hartzen badira, bibliatik hartutako pasarteen itzulpen literalen edo hauen eraginpean egindako esaeren aurrean gaudela somatzen da. Bederatzi hauetatik lau gainera, seme prodigoaren parabolatik hartutako pasarteak dira. Hau da, AITAREN ETXEA itzulpen kutsua duten esaeretan adierazten da (38).

-REN atzizkiak, beste erabilpen batzuen artean, propietate harremana adierazten duela kontutan hartuz, eta, esanahia honekin, gizartekide eta ondasunen

(38) Gabriel Aresti-ren “Nire aitaren etxea” olerkiak zabalkunde eta ospe izugarria hartu badu ere, AITAREN ETXEA *corpus* honetan, itzulpen kutsua duten esaeretan agertzen dela bakarrik konturatzen gara.

arteko harremanetan atzizki honen agerpena ia hutsa dela ohartuz, zera ondorioztatu genezake: **aztertzen ari garen gizartekideak inoiz ere ez direla ondasunen propietario bezala agertzen**. Zentzu honetan, gizabanakoek elkarte batetako kide diren heinean (eta ez gizaki diren heinean) lortzen dutela ondasunak erabili eta gozatzeko eskubidea pentsa genezake, hau da, ETXE edo HERRI batetako kide diren heinean.

III. ARDURA NAGUSITZEN DA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

